

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2019ko apirila / 293. zenbakia

www.oñati.eus  



Badator KORRIKA

Apirilaren 13an, larunbata, eguerdiko 12etan igaroko da Korrika Oñatitik, Arrasatera bidean



Oñatiko udala,
osasun zentroa
eta Jaurlaritza
nahiz Aldundiko
ordezkariak
zerbitzu
berriaren
aurkezpenan

Ohitura osasuntsuak sustatzea helburu

- » **Ohitura osasuntsuen orientazio zerbitzua** jarri dute martxan udalak eta osasun zentroak
- » **Anbulatorioan** eskainiko da zerbitzua, dohainik.
- » Hasiara batean **70 urtetik gorako** herritarrei zuzenduta egongo da.

Euskal gizarte aktiboa lortzeko helburuarekin Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia bultzatzen ari diren **MUGIMENT** egitasmoarekin bat eginez, Oñatiko udalak eta osasun zentroak 'POZ' **Ohitura Osasuntsuen Orientazio Zerbitzua** jarri dute martxan: .

Oñatiarren artean bizi-ohitura aktiboagoak eta dibertigarriagoak sustatzea da zerbitzu berriaren helburua; oñatiarren bizi-portaeran aldaketa eragitea, sedentarietatik bizitza aktibora pasatuz. Beste modu batera esanda, herritarrek ohitura osasuntsuetan hezitzea, prebentzio neurri gisa.

70 URTETIK GORAKO HERRITARRENTZAT

Hasiara batean 70 urtetik gorako gizon-emakumeei zuzen-

dutako zerbitzua izango da, eta osasun zentroko mediku eta erizainek 'ez-aktibo' bezala identifikatutako pertsonak bideratuko dira bertara.

Jarduera fisikoan eta kirol zientzietan graduatua den Beñat

Agirreurreta arduratuko da zerbitzua emateaz, osasun zentroko profesionalen elkarlanean, eta pertsona bakoitzaren ezaugarrien (adina, osasun egoera, baldintza sozioekonomikoak...) arabera plan pertsonalizatuak prestatuko ditu. Pertsona bakoitzaren beharrak detektatu eta komenigarriena

zaion ariketa mota nola eta non egin dezakeen erakutsiko dio, jarduera fisikoa egitera animatuz, etxean, kalean edo kiroldegian. Bizitza estilo osasungarria eramatea da helburua, funtzionalitatea hobetu eta menpekotasuna atzeratzeko.

Gizarte aktiboa lortzea da helburua; sedentarietatik bizitza aktibora pasatzea

Astelehen eta asteazkenetan emango da zerbitzua, apirilaren 15etik aurrera

Etxe-Aundi
Hotela · Jantokia

Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

BEÑAT AGIRREURRETA eta **KIZKITZA ALUSTIZA**
Orientazio zerbitzuko arduraduna eta koordinatzailea

Pertsonen funtzionalitatea hobetzea da helburua

Jarduera fisikoan eta kirol zientzietan graduatua den Beñat Agirreurreta kontratatu du Oñatiko udalak 'POZ' Ohitura Osasuntsuen Orientazio Zerbitzua emateko. Osasun zentroan emango du zerbitzua bertako mediku eta erizainekin elkarlanean. Kizkitza Alustiza, erizainen koordinatzailea, izango da Beñaten erreferentea pazienteen inguruan egon litezkeen zalantzak argitzeko.

'Especialista' bat gehiago egongo da aurrerantzean osasun zentroan.

Bai. Medikuek eta erizainok beti aholkatu izan diegu pazienteei jarduera fisikoa egitea, baina ez genekien zer eta nola aholkatu. Orain aditu bat egongo da orientazio pertsonalizatua emateko.

Hasiera batean 65-70 urtetik gorako pertsonetara mugatu duzue zerbitzua. Zergatik?

Zerbitzu berria delako, poliki eta ondo hasi nahi dugulako, eta, batez ere, Osakidetza martxan duen Nagusien Arreta Planak garrantzi handia ematen diolako pertsonen funtzionalitateari. Horregatik perfil horretako pertsonekin hasiko gara, eta poliki poliki zabalduz joango gara, besteak beste, haurren artean ematen den obesitate arazoari ere aurre egiteko.



Nola funtzionatuko du zerbitzuak? Edozein herritarrek jo ahal izango du bertara?

Ez, hasiera batean medikuek eta erizainen kontsultan ez-aktibo bezala identifikatzen ditugun pertsonak bideratuko ditugu orientazio zerbitzura, eta Beñatek pertsona bakoitzaren ezaugarri (adina, osasuna...) eta beharretara egokitutako plan pertsonalizatuak prestatuko die, jarduera fisikoa

egitera animatuz. Zein ariketa mota, non eta nola egin behar duen erakutsiko die. Bazuetan ambulatorioan bertan egingo dira, perfil beretsuko pertsonak elkartzen direnean; bestela, etxean, kalean edo kiroldegian egin ahal izango dituzte.

Demostratuta dago jarduera fisikoa egiteak pertsonen funtzionalitatea hobetzen duela, eta hori da gure helburua. ■

JARDUERA FISIKOA EGITEAREN ONURAK

Sara Martínez de Zuazo / 74 urte



Astegunetan egunero etortzen naiz kiroldegira. Bizikleta estatikoan 30 minutu egiten ditut, eta ondoren igeri egiten beste 20 minutu. Orain dela lau bat urte hasi nintzen, eta ahal dela, ez dut

uzten. Beti gustatu izan zait ibiltzea eta gimnasia egitea. Oso gustura etortzen naiz. Igerilekutik oso erlaxatuta irteten naiz. Gero, iluntze partean ordubeteko ibilalditxoak egiten dut senarrarekin eta alabarekin, Errekalde eta Artxubi artean.

Luis Martínez de Arenaza / 68 urte



la egunero egiten dut ordubeteko saioa kiroldegiko bizikleta estatikoan. Bazuetan igerilekura ere joaten naiz; pittin bat igeri eta ariketak egiten ditut uretan. Beti gustatu izan zait kirola egitea; batez ere bizikleta eta igeriketa. Bazkalostean ere sofan eserita gelditu ordez, pasiotxo bat egitera joaten naiz emaztearekin. Denbora edukiz gero, egunean ordu pare bat egitea gomen-datuko nuke. Ni arinago sentitzen naiz.

M^a Carmen Murguzur / 78 urte



la goizero etortzen naiz kiroldegira eta 45 bat minutuko ekinaldia egiten dut; bizkarra aldea daukan bizikletan pittin bat, eliptikan beste apur bat, eta hanketako nahiz besoetako muskulazioa indartzeko ariketa batzuk ere egiten ditut, bertako monitoreak erakutsitako moduan. Eta egia esan, oso gustura nabil; bernatako min gutxiago daukat eta, oro har, on egiten didala sentitzen dut. Ilunkaretan ordubate inguruko pasiotxoak egiten dut.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI

VENEZUELA albiste iturri etengabea dugu azkenaldian, Juan Guaidó bere burua presidente izendatu zuenetik. Bertan exiliatuta bizi den Asier Guridi oñatiarrarekin hitz egin dugu Bolibartar Errepublikan bizi duten egoera politiko eta ekonomiko larriaz.

Laster beteko dira bi hilabete Juan Guaidó bere burua Venezuelako presidente izendatu zuela, herrialdeko tentsio politikoa areagotuz. Zein da zure irakurketa?

Nire ikuspegitik kafkianoa da gertatzen ari dena. Guaidó sobera daki Asanblea Nazionalako diputatu soil bat besterik ez dela eta latinoamerikan berriki egin duen jiratik bueltan beste edozein herritarren gisan migraziozko leihatilatxotik pasa zuen bere burua Maiquetiako aireportuan Venezuelara sartzeko; Venezuelako presidente balitz ez zuen migraziozko leihatilatxotik Maduro presidentearen funtzionari baten migrazio azterketa igaro beharrik izanen.... Guaidó sobera daki ez dela Venezuelako presidente eta herritarrei "fake" hori sinistarazi nahian ari da... Benetan "boteregabezia" aldi bat egon izan balitz hogeita hamar egunetan hauteskondeak deitu beharra zeukan eta ez du halakorik egin. Venezuelako presidente bada, bere ministroak beharko lituzke izan eta ez du ministrorik izendatu oraino...

Duela urte batzuk Euskal Autonomi Erkidegoan, Espainiar "justiziak" jarri zituen baldintzak Patxi Lopez PSEko kidea lehen-dakari bihurtzeko.... Ba orain Venezuelako Estatu Batuak dira trikimailu eta joku zikina darabiltenak hauteskunderik irabazi ez duen Guaidó iruzurgilea presidente bihurtzeko.

laz Venezuelako presidente berria hautatzeko hauteskondeak izan ziren eta oposizio hainbat ordezkari aurkeztu ziren; nahi zuenak bere burua aurkeztu ahal izan zuen eta Madurok irabazi zituen hauteskunde horiek. Hauteskunderen deitzaile, zain-



Asier bere seme Ibanekin. (Artxiboko irudia)

ASIER GURIDI ZALOÑA / Venezuelako erbesteratutako oñatiarra

“Guaidó sobera daki Asanblea Nazionalako diputatu soil bat besterik ez dela”

Asierrek uste du Venezuelako herriak esan behar duela, inongo injerentzia edo presiorik gabe, Maduro noiz arte edota bere ordezkoa nor izan behar den

tzaile eta begiralea CNE deritzaion boterea (botere elektoral) da eta Guaidó bera ere, CNE honetxek deituriko Asanblea Nazionalerako hauteskunderi esker da Asanblea Nazionalako diputatu. Beraz CNE-ren legitimitasuna ez dago ezbaian edo zalantzan jartzerik.

«Semeak hurrengo ikasturtea Oñatin hastea da nire desioa»

Eta herriak, oro har, nola bizi du egoera? Tentsioa al dago herritarren artean?

Bi hilabete hauetan egoera tenkatu eta ezegonkortasuna areagotu egin da; elektrindar sareari eginiko erasoak herritarrak egoera larrian jarri ditu; batez ere egunerokoan horren garrantzi-

tsua den ura falta izan delako, telefono bidezko komunikazioak zaildu eta Internet bidezko komunikazioak ia ezinezko bihurtu direlako hainbat egunez...

Baina ukazina da Venezuelako krisia bi hilabete hauen aurretikoa dela, makroinflazioa, txanponaren egunetik egunerako debaluazioa... Bertako produkzioaren gainbehera... Arlo guztietan nabarmena den koprupzioa...

Herritarren artean kezka da nagusi. Kotxea izan ezkerko kotxeko gurpil bat erosteko ahalmen ekonomikorik gabe dago gehiengo; beraz gurpil bat hondatzean kotxe mugitzeko aukerarik gabe gelditzen zara... eta lurgaineko garraio publikoa oso txarra izatean ba lanera, eskolara edo bestelako eginbeharrak egitera joateko ezintasunak iristen dira.

Herritarrak osasungitza arloak bereziki kezkatzen ditu. Sendagaiak lortzea oso zaila egiten ari da, gabezia horretaz baliatzen direnak ere agertzen dira eta farmazietan aurkitzen ez dituzun sendagaiak dolarretan ordaintzeko eskaintzen dizkizute... Bihotzeko arazoekin, parkinson gaixotasunarekin eta beste zenbait gaitzekin egunero medikamentuak behar dituztenek zailtasun handiak dituzte. Eta txirotasun egoeran bazaude ba akabo!

Argindarrak egon ez den egunetan egoeraz baliatu eta beste miseriaren kontura aberastu nahi izan duenik ere izan da, ura eta izotza dolarretan garesti salduz.... Haragia herritarrei banatu baino haragia usteltzea nahiago izan duten harategiak.... Eta herritarrak gose, beharrean eta kezkatuta.

«Paperik gabe eta Estatu Espainiarrak egozten dizkidan asmatu-akusazio larrien menpe bizi naiz»

Hamabost bat urte darama Asierrek Venezuelan exiliatuta bizitzen. Familia ere osatu du, eta lban semea Oñatira ekartzeko gogoz dagoela aitortu digu. «Bai, bere aiton-amonak ikusi eta datorren ikasturtea oñatiko ikastetxe batean hasi ahal izatea da nire desioa. Baina horretarako hainbat eragozpen ditugu pasaporte, migrazioarako legalitate eta bidaiatze-erosketan...»

Bere egoera pertsonalari dagokionez, kezka bizi du Asierrek Venezuelako balizko erregimen aldaketak beregan izan dezakeen eragina. «Ni, gaur egun, paperik gabeko exiliatu politikoa bat naiz. Paperik gabe eta Estatu Espainiarrak egozten dizkidan asmatu-akusazio larrien menpe bizi naiz; egoera guztiz ezegonkorra eta babesik gabea. Erregimen aldaketak nire egoeran eragin dezakeela posible ikusten dut. Nahiz eta oposizioarekin bat egiten duten hainbat eragilek nirekiko elkatasuna erakutsi izan duten; adibidez *Marea Socialista*, MAS eta Causa R alderdiek, edo giza eskubideen lanketa ardatz duen *Provea* taldeak besteak beste.»

Dena den, Angel Telerría oñatiarrarekin gertatutakoa gogorarazi digu Asierrek, hainbat urtez ihesean egon ostean, bilatze eta atxilotze aginduak preskribatu baino lehen atxilotu, eta urte luzeetako zigor eskariei aurre egin beharrean dagoena.

Elkarrizketarako deiak, hautakundeak deitzeko eskaerak, esku-hartze militarra, gerra zibilerako arriskua.... Gauza asko entzuten ari gara azkenaldian, eta ez oso itxaropentsuak. Zer gerta daiteke? Zein izan daiteke, zure ustez, irtenbidea?

«Venezuelan ez da ezer falta! Kontua da, herritarren gehiengoak ez duela erosteko ahalmenik. Aberastasuna gaizki banatuta dago»

Egoera beltz ikusten dut, ukazina da egoera latza bizi dela eta gehiengoak arazoak dituela bizi kalitate duin bat izateko. Langile baten gutxiengo soldatarekin oso gutxi erostea daiteke; janari eta bestelako gauza beharrezkoen balioa egun batek bestera aldatzen da.

Noski guzti honen atzean hor daude Estatu Batuak ahalik eta eragozpen, zigor eta oztopo gehien jartzen Venezuelak nazioarteko salerosketa merkatuan erostetik izan ez dezan, adibidez. Venezuelako Gobernuari eragozpenak jartzen dizkiote beste lurralde batean sendagaiak, jakiak eta beharrezkoak dituen gauzak erosteko. Venezuelako bertako ekoizpena oso txikia da azken urte hauetan eta azken hamabost urteetan bederen asko inportatu behar izan du; orain inportazioarako eragozpenak eta ezintasunak ezarri dizkiote.... Ingalaterrak Venezuelako urrea du eta orain ez dio Venezuelari uzten urre hori mugitzen edo urre horrekin salerosketa egiten, adibidez.

Otsailaren 23 aldera inbasio eta gerra arriskua oso gertu ikusten nituen....



COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus

Amalia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Ilogailuen eta O kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

nezuela ahalik eta egoera okerean jartzen saiatzen ari den Estatu Batuak indarrez sartzen saiatu nahi izan zuten ustezko "laguntza humanitario" baten atzean egotea?. Eta indarrez sartzen saiaturiko ustezko "laguntza humanitarioa" diot, jakin ondotox dakigunean Estatu Batuek indarra eta metodo txar guztiak erabiltzen dituztela Tjuanako mugatik lan eta janari bila Estatu Batuetara sartzen saiatzen diren latinoamerikarrei bizitza ezinezko egiteko... Eta nik galdetzen dut, zergaitik ez dituzte migrazioan ari diren latinoamerikarrek onartzen eta zergaitik ez dizkiete hauei eskeintzen duin bizitzeko baldintzak?

Krisi politikoa ez ezik, krisi ekonomikoa ere bizi du Venezuelak. Oinarrizko produktuak falta omen dira (elikagaiak, medikamentuak, garbitasunekoak...), eta jende asko ari omen da erbestera jotzen... Nola bizi duzue egunerokoa?

Egoera gogorra da, bai, aipatu dudan moduan. Baina Venezuelan ez da ezer falta! Ahalmen ekonomikodunen zonaldeetara joaten bazara denetik aurkitu zenezake; aberastasuna gaizki banatuta dagoen adierazle argia. Kontua da, herritarren gehien-goak ez duela erosteko ahalmenik.... Argindarra falta izan den egun hauetan poltsa bat izotz erosteak langile baten gutxiengo soldatak baino gehiago balio zuen.... Baina hor ikusten zenituen ahalmen ekonomikoa dutenak oilasko erreka saltzen duten tokietan bazkaltzen, afaltzen, toki horietako aire egokituaz freskatzen.... Aldiz herritarren gehien-goak karretila edo

«Penaz eta tristuraz bizi dut Euskal Herriko egoera»

Euskal Herrian bizi dugun egoera politikoari buruzko iritzia ere eman digu Asierrek. «Hemendik penaz eta tristuraz bizi dut Euskal Herriko egoera. Autonomismoak, trantsizio berriak eta politikakeria gailendu direla iruditzen zait. EAJ independentziaren bidean jarri ordez, Ezker Abertzale ofiziala autonomien Espainiako dinamikan murgildu dela esango nuke.... Ez dut independentziaren aldeko norabidean lanketarik ikusten; hauteskundeak, legealdia eta buelta berriro berdinari. Estatuaren instituzioak kudeatzea helburu eta Estatuak ez dizu utziko inoiz independentziarako norabidean kudeatzen... Horretarako dauka 155. artikulua indarrean jartzeko mehatxu iraunkorra. Uste dut Estatuarekin haustura eragin behar dela eta horretarako ausardia, desobediencia eta borroka izan behar direla tresna».

ETA erakunde armatuaren desagiteaz eta presoan aferari buruzko iritzi ere eskatu diogu. «ETAren desagitea borrokaldi batean emaniko porrot gisa bizi dut. Ez ziren bilatzen genituen helburuak lortu!!! Baina borroka bera ez da galdu eta Euskal Herriak okupazioari aurre eginez independentzia lortuko duela sinisten dut».

«Presoen auzian garrantzitsua iruditzen zait izakera politikoa beti present izatea. Era berean ez naiz bakarkako irteeren aldekoa eta borroka honetan batera sartu ginenez, kolektiboaren batasunean erantzun behar zitzaizela uste dut. Eta Arzalluz "guturiko" bihurtu den unean, ez dut ulertzen nola baztertu eta abandonatu diren espetxealdi gogorretan tinko dirauten hainbat euskal preso politikoa».

bestelako tramankuluekin ur bila batera eta bestera. Kontraste ikaragarria!

Lagun asko izan dira, bai, baldintza hobetuen bila atzerrira joan beharrean... Batez ere Peru, Ecuador eta Kolonbiara,

«Estatu Batuak ahalik eta eragozpen, zigor eta oztopo gehien ari da, Venezuelak nazioarteko salerosketa merkatuan erosterik izan ez dezan»

baina baita Panama eta Argentina aldera ere. Europara Joan direnen kopurua txikiagoa da gaur egun Venezuelar batentzat oso zaila da hegazkinez bidaiatzeko txartelak erosi ahal izatea.

Zein da Venezuela egoera horretan egotearen arrazoia,

munduko petrolio erreserba handienak dituen herrialdea izanik? Gai al da Maduroren erregimena egoera horri buelta emateko?

Petrolio, urrea, koltana, beruna eta bestelako mineralak daude hemen.... Boteretsuen artean interes handia dago Venezuelako errekurtsioak ustiatu.... eta aberastasuna euren gaitzeko!!!

Ene uste apalean herriak esan behar du inongo injerentzia edo presiorik gabe Maduro noiz arte edo eta Maduroren ordezkia nor izan behar den.... Venezuelan hauteskunde asko izan dira azken urte hauetan eta bere hauteskunde programari jarraipen normala ematea da Venezuelari gerta dabilokeen onena; hauteskundeak, hauteskunde legeak dioenean eta ez kanpo presioaren eraginpean!!! ■



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Krisi konstituzionala, horixe Komen da, Vasquezen ustez, Venezuelak bizi duen gatazka politikoaren oinarrian dagoena. "Alde biek argudiatzen dute konstituzioa alde dutela, eta hori ez da posible. Kontua da, zuzenbide estatuak ez duela funtzionatzen; 2015ean kargu-betutak izan ziren gobernuarekin bat ez zetozen Auzitegi Goreneko eta Konstituzio Aretoko hainbat magistratu, eta hor hasi ziren arazoak. Ez dago aginte judicial legezko eta independenterik, konsituzioa interpretatu eta arazoak ebartziko dituen".

Herrialdea krisi egoera larrian ikusten du, azken asteetako argi-etenek erakusten duten moduan. "Ospitaleetan jendea hil egin da; krisia benetakoa da, ez da propaganda kontua. Zerbitzuen eraginkortasunari dagokionez, herrialdea noraezean dabil, eta herritarrek ahal duten moduan bizirauten".

ELKARRIZKETA DA BIDEA

Elkarrizketa da irtenbide bakarra, Vasquezen ustez. "Demonstratuta dago oposizioak ez daukala boterea indarrez hartzeko gaitasunik. Estatu Batuen edo nazioarteko koalizio baten esku-hartzea aldarrikatzen ari da, eta hori are tristeagoa da. Ni ez naiz sekula identifikatuko horrekin, eta venezuelar asko ere ez". Estatu Batuen ustezko laguntza humanitarioaren atzean dauden interesak begien bistakoak omen dira. "Venezuelan daude mundu osoko petrolio erreserben %20, Estatu Batuetatik lau ordura hegazkinenez, edo egun batera, itsasoz. Munduko urre erreserba inportanteenak ere (Hego Afrikako ondoen) bertan daude, eta baita diamante, koltan eta beste mineral batzuen erreserbak ere. Hau da, Venezuela oso erakargarria da edozein enpresarentzat. Beraz, ez dut uste Estatu Batuen esku-hartzea denik gure arazoak konpontzeko bide egokiena".

Maduroren gobernu egiten ari den "buru-garbiketa" ahalegina ere salatzen du Vasquezek. "Komunikabideak kontrolatuz eta



HERMANN VASQUEZ / Oñatin bizi den venezuelarra

"Venezuelarren gehiengoa, alde batekoak nahiz bestekoak, indarkeria erabiltzearen aurka dago"

Hermann Vasquez (Caracas, 1967) Oñatin bizi da iazko irailaz geroztik. Estatuko abokatua izan zen bost urtez Venezuelan, eta lan arloko epaile gisa ere aritu zen bederatzita urtez. Egun Lege-Soziologia masterra ikasten ari da Oñatiko Lege Soziologia Institutuan, eta asilo eskaera egin du, jazarpen politikoa argudiatuta. Venezuelan bizi den egoerari buruzko analisia egiten lagundu digu. Krisi konstituzionala dagoela esan digu, eta elkarrizketa dela irtenbidea. Gobernuak delitu asko egin dituela uste du, baina Guaidó buru duen oposizioak ere ez dabil estrategia egokia, bere ustez.

diskurtso bakarra baimenduz, jendeari sinistarazi nahi dio Venezuelen gertatzen ari den guztia blokeo iparramerikarraren ondorio dela, eta gizartearen zati batek ontzat ematen du, oraingoz". Paramilitarismoa eta bestelako diskurtso publikoa dutenen aurkako jazarpena ere eguneroko ogia direla salatzen du Vasquezek; "nik neuk ere bizi izan nuen, Unibertsitate Zentraleko irakasle nintzela".

Tamalez, ez du konponbidea bideratzeko beharrezkoa den elkarrizketarako aukerarik ikusten. "Guaidó ari da jarraitzen

Venezuelako gatazka politikoaren oinarrian krisi konstituzionala dago»

Gobernuak delitu asko egin ditu, baina matxinada ez da bide egokia. Elkarrizketa eta hauteskundeak dira bidea

atzeritik ezartzen dioten ildo politikoa; ez dauka agenda propiorik. Ez da benetako liderra. Ez dauka negoziatzeko gaitasunik".

Vasquezen ustez Guaidó aukera galdu zuen Cúcutako krisiaren garaian. "Gobernu prest zegoen NBEk ikuskatu eta Mexiko-Uruguai gidatutako negoziatio prozesu batean parte hartzeko. Eta hori zen bidea. Hauteskundeak egingo ziren, gobernuak agintea galduko zuen, eta Justizia Trantsizionaleko neurriak hartuko ziren, gobernuak egin dituen delituak bideratzeko".

MATXINADAREN APUSTUA

Tamalez, baina, Guaidó ez da elkarrizketaren bidea jorratzen ari, "matxinadarena baizik; baina ez dauka behar besteko indarrik barruan. Eta, gainera, gezurra badirudi ere, Venezuelako gehiengoak, ez alde batekoek ez bestekoek (paramilitarismoa hor badago ere) ez du indarkeriarik nahi aldaketa politikorako mekanismo gisa. Gehiengoak hauteskundeak nahi ditu bertako arazoei irtenbidea emateko".

Ekonomikoki Venezuela oso egoera larrian dago. Petrolio ekoizteko ahalmena heren batera murriztu da, ustelkeriaren eta eraginkortasun ezaren ondorioz. Gainera, urrea eta bestelako mineralak atzerrira ateratzen dituzte mafiek, gobernuaren diru-kutxetatik pasa barik. Horri gehitu behar zaio, Estatu Batuek eta Europar Batasunak Venezuelaren kontuak itxi dituztela. "Herrialdea hondamendira bidean dago, krisi politikoaren ondorioz".

ASILO ESKAERA

Lege-Soziologia masterra egi-tera etorri zen Vasquez Oñatira iazko irailean eta, bide batez, asilo politikoa eskatu du, jazarpen politikoa argudiatuta.

Gustura dago Oñatin, eta bertan ikusi duen elkartzun maila azpimarratzen du. "Antolakuntza maila, giza baloreak eta errefuxiatuei harrera egiteko prozesua oso aberasgarria da. Oso interesgarria da Oñatiko gizartea". ■



Badator KORRIKA

Apirilaren 13an, larunbata, eguerdiko 12:15etan igaroko da Korrika Oñatitik, Arrasatera bidean

Apirilaren 13an, larunbata, iritsiko da Korrika Oñatira, azken helmugara (Gasteiz) iritsi bezperan. Goizeko 11:45etan jasoko dugu lekukoa Udanan, eta eguerdiko 12:15 aldera igaroko da herri-gunetik, Arrasate alderantz. Aukerako eguna eta ordua, jendea kalera irten eta euskararen aldeko festa handi bat ospatzeko.

Oñatiko Korrika Batzordeak asteak daramatza lanean, eta hainbat ekitaldi antolatu ditu (ikus egitaraua) Korrika girotzeko. Beraz, dei egiten zaie herritarrei ekimen ezberdinetan parte hartzera.

Gogoratu, bi urtetik behin egiten dela Korrika, AEK-k antolatuta. Euskararen aldeko kontzientzia suspertu eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea da helburua. Aurtengoa 21. edizioa da.

BAZKARI HERRIKOIA

Korrika igaro ostean dantza-poteoa egingo da Oñatzen eskutik eta ondoren bazkaria Antixena gaztetxean. Ona eta Arrano tabernetan daude salgai tiketak. Animatu!

KORRIKA KULTURALA - Egitaraua

APIRILAK 6-7

Asteburu pasa Iparraldera. Gaztetxeak antolatuta. Maulen (Zuberoa) Korrikan parte hartuko dute, besteak beste.

APIRILAK 7

3 antzerki labur: 'Tabernaria', 'Komunak' eta 'Biba voi!' Gaztetxean, kultur etxean eta Elkar Hezi ikastetxean (DBHko gunean). Doan.

APIRILAK 11

Laburbira, euskarazko film laburren emanaldia. Kultur etxean, 20:00

APIRILAK 12

Plazaren apainketa eta *Korrika Txikia* herrian zehar (15:30).

APIRILAK 12

Huntza eta *Mc Onak* taldeen kontzertua Foruen plazan, 20:00

APIRILAK 13

11:00 Korrika *beroketak* Eltzia kanpoan Irazan-en eskutik.

12:15 Korrika nagusia

Korrika pasa ostean:

-**Dantza-poteoa** (Oñatz dantza taldearen eskutik)

-Korrika **bazkari herrikoia.** Gaztetxean. Tiketak Ona eta Arranon salgai (langileak 12€ /Ikasle eta langabetuak 8€). Aukera begetarianoa ere egongo da

LEKUKOA ERAMANGO DUTENAK

Udana gainean jaso eta Elorregiko biribilguneraino eramango dugu Korrikaren lekukoa oñatiarrok. Hona hemen 15 kilometro horietan lekukoa eramango dute elkarte eta erakundeak hurrenez hurren: **1.** Txanda; **2.** EAJ + Joxely; **3.** Bizipoz + Goiena; **4.** Antxintxiketan eta Abixaran + Bildu; **5.** Mondragon Unibertsitatea + Musika Eskola; **6.** Oñatz + Urgain; **7.** Ikastolako langileak + Eltzia; **8.** Gaztetxea + Elkar Hezi; **9.** Ikastolako ikasleak + Euskaraldia; **10.** Lagun Leku + Chinchurreta; **11.** Lana + Fagor; **12.** Ulma + Euskal Artzain Txakurren Adiskideak; **13.** Makalena + Debagoieneko ESI; **14.** Udala; **15.** Goma 2 lagun taldea.

KORRIKA ABESTIA

Heldu da guztion andereñoa
adi, adi, pasatuko dut zerrenda
je suis Mad Mua Sel ohlala!
Faty faty den soinua zabaltzen dut mundura
Guztiok bat egitea ezinbestekoa
bakoitzaren nortasuna errespetatzea
motorrak arrankatzeko momentuko aukera
gurea, herrikoa, KO RRI KA
Tipi tapa tipi tapa lortzen merezi duguna
martxan jartzen hasteko eginzazu KLIKA
ez dugu presarik helburua argi dago eta.
Pausuz pausu, gure erritmora!

Gure erritmora

nire, zure, gure erritmora

Hey Fermin, nola da?

GURE ERRITMORA

KLIKA KORRIKA KLIKA

GURE ERRITMORA

KLIKA KORRIKA KLIKA

KORRIKA!

Jai giroa, bero beroa

Orain oraingoa gero gerokoa

Oreka ez galtzeko oinarri sendoa

Hauxe da gure leloa:

PO-PO- PO- SIBLEA DA KLIKA ALDATZEA

elkarren artean konektatzea

Pra- pra- praktikatzea

euskara gure artean bitzitea

Lan ta lan, banaka, taldean

Aukeratu zure lekua bidean

Herriaren arnasa sentitzen da

Korrika datorrenean

Zu gabe, zu gabe, hau ez da posible

orain gaur eta hemen dena da POSIBLE

Gure erritmora

nire, zure, gure erritmora

KLIKA KORRIKA KLIKA

GURE ERRITMORA

KLIKA KORRIKA KLIKA

Klika, klika!

Altxa ezkerreko besoa

klika klika!

Orain altxa eskubikoa

Klika, klika!

Antenak ditugu piztuta

Klika, klika!

Gure sarea doa korrika

Klika, klika!

Euskal planeta ari da dantzan

Klika, klika!

Betikoak ari dira guri sermoika

Klika, klika!

Euskaraz egingo diet zirika

Klika, klika!

Ikimilikiliklik...a!!!

Suaren erritmora, hitzari bide eman
arbasoen dantzak, kulturaren gorputzean
Kantauriko brisa, Barde(a)tako ziertzoa
Gure Borrokan tinko jarraitzeko hauspoa
Pista argituko duen metxa piztu dadila
Herri feminista eta askearen alde Klika
Lekukoa neskaxari emango dioten,
Amamek ahotsa altxatu dezatela ozen,
Aterpea sentitzeko,
komunikatzen den herri bat ez da inoiz
zaitutuko.

Erriberatik la Furia banator korrika

Batu gaitezen guztiok arma tiro Klika!

Gure erritmora

Nire, zure, gure erritmora

KLIKA KORRIKA KLIKA

GURE ERRITMORA

KLIKA KORRIKA KLIKA

KORRIKA!





Sei buru, txapel bakarrerako

Andoni Goitia, Joseba Lasagabaster, Urko Egaña, Urko Arregi, Egoitz Aizpuru eta Beñat Alberdik parte hartuko dute Oñatiko VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketako finalean.

APIRILAREN 13AN JOKATUKO DA FINALA GAZTELEKUAN, 18:00ETAN

Bi finalerdiak jokatura, dena prest dago apirilaren 13an Gaztelekuan jokatu den VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketako finalerako.

Orain arteko bi saioak, Gaztetxean eta Eltzian jokatutako bi finalerdiak, ederrak izan dira. Hamasei bertsolariak oso txukun aritu dira eta bertsozaleok gozatu ederra hartu dugu. Zorionak denei eta epaile, gai-jartzaile eta bestelako lanetan aritu diren antolakuntzako kide guztiei.

Baina hau lehia da, eta antolakuntza taldeak erabaki bezala, sei bertsolari bakarrik egingo dute aurrera, eta hauxe izango da, finalean ariko den seikotea, lortutako puntuen hurrenkeran: Andoni Goitia (azken txapelduna), Joseba Lasagabaster, Urko Egaña, Urko Arregi, Egoitz Aizpuru eta Beñat Alberdi.

Sasoi puntuan eta bertso-tarako freskotasunez daudela erakutsi dute guztiek; beraz, saio polita izateko osagai guztiak ditu finalak. Gogoratu,



Herritar asko batu da bertso saioetan

gainera, egun horretan bertan Korrika pasako dela Oñatitik eta, beraz, euskararen eta euskal kulturaren aldeko egun borobila izan daitekeela.

Oñatiko Txinparta Bertso Eskolaren sortzaileetako bat izan zen Xabier San Migelek jarriko dio txapela irabazleari. Andoni Goitia puntuxo bat gaintetik ikusten duela esan zigun, baina inori aterik itxi barik.

Finalean banatuko diren sari guztiak herriko artisauek eta Eltzia kideek sortu eta ekoizitakoak izango dira, he-

rriko eragileen arteko elkar-lana sustatuz.

Gogoratu, bestalde, herriko zenbait tabernetan gai-kutxak daudela, finalerako gai proposamenak aurkezteko, apirilaren 8ra arte.

Finalerdiako puntuazioak

1. FINALERDIA

Joseba Lasagabaster	234,7
Urko Egaña	232,3
Beñat Alberdi	226,2
Maidar Arregi	222,8
Xabi Pakual	192,3
Gorka Larrea Txapel	191,8
Ander Lizarralde	190,2
Bittor Zubiagirre	187

2. FINALERDIA

Andoni Goitia	235,4
Urko Arregi	231,3
Egoitz Aizpuru	226,9
Aitor Tatiegi	214,5
Odei Irigoien	204
Joseba Urzelai	198
Aritz Irigoien	195,9
Gontzal Belategi	186,6

Oharra:

Finalerdi bakoitzeko irabazlea eta puntuazio altuena lortu duten lau bertsolariak sailkatu dira finalerako

TATIEGI, ESKOLARTEKO TXAPELKETAKO FINALEAN

Aitor Tatiegi ez zen Oñatiko finalerako sailkatu, saio oso txukuna egin arren, baina apirilaren 5ean Lasturren bertso-afari formatuan jokatu den Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean egongo da, Uxue Alkorta, Aner Peritz 'Euskitze', Haizea Arana, Imanol Albizu, Oihana Arana, Igauri Lopetegi eta Maddi Aiestaranekin batera. www.bertsosarrerak.eus atarian daude salgai txartelak.



Ainhoa Galdos izango da EAJren alkategaia, eta Aitziber Fernandez PSE-EErena



Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hiru alkategai ezagutzen ditugu dagoeneko. EH Bildu izan zen bere zerrendaburua (Izaro Elorza) aurkezten lehena, eta berriki ezagutu ditugu EAJ-PNV eta PSE-EErenak.

HERRIGINTZARA BUELTRAN

Ainhoa Galdos Olazar (Oñati, 1966) izango da EAJ-PNVren alkategaia maiatzeko bozetan. Goi mailako piano ikasketak ditu eta Jose de Azpiazu musika eskolan dihardu irakasle. Pake Lekuko Aloña abesbatza ere zuzentzen du.

Esperientzia luzea du Galdosek udaletxeko politikagintzan edo, berak nahiago duen moduan, herrigintzan. Hiru agintaldi osatu zituen udaletxean 2003-2015 artean, horietako bi gobernuan eta azkena oposizioan. Alkateordea izan zen lau urtez; Auzoak-Landa Garapena eta Euskara-Hezkuntza batzordeetako buru ere izan zen. Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide ere izan zen zortzi urtez (2007-2015).

Ilusioz eta, batez ere, lana egiteko gogoz aurkezten dela esan digu. "Alderdiak eskatu dit eta gogotsu nago. Herri honek aldaketa behar duela uste dut, eta ilusio horrekin aurkeztuko

gara, gobernu ardurak berreskuratzeko asmoz ahal bada; baina oposizioan egon behar badugu ere, berdin berdinekin egingo dugu lan herriaren alde, beti bezala.

24 URTEREN ONDOREN OÑATIAR BAT

Hogeita lau urteren ondoren oñatiar bat izango da berriz ere PSE-EEren alkategaia. Aitziber Fernandez Azurmendi (Oñati, 1973) da bera. Artearen Historian lizentziaduna, Gasteizko Michelin-en egiten du lan, eta ilusioz heldu dio erronkari. "Euskal Herrian bizi izan dugun indarkeria egoerak galarazi du PSEk herriko hautagaiak edukitzea, baina egoera aldatu egin da, bakean bizi gara, eta uste dut aberasgarria dela aukera ezberdinak egotea hauteskundeetan. Oñatin pentsakera desberdineko jendea dago, eta ni saiatuko naiz sozialistek ahotsa izan dezaten udaletxean".

Gazteek, bereziki, etxebizitza duinak eta merkeagoak eskuragarri edukitzeko erakundeen arteko akordioak bultzatzea, eta Oñatik turismo mailan duen potentziala baliatuz, kalitateko eskaintza eginez lanpostuak sortzea izango dira bere lehentasunetako batzuk.

Oñatiarrak batzar nagusietarako eta kongresurako hauteskundeetan

Apirilaren 28an Espainiako Kongresuko eta Senatuko hauteskundeak izango ditugu, eta oñatiar bana azaltzen dira EH Bilduren eta EAJ-PNVren zerrendetan. Koalizio abertzalearen zerrendan Nerea Zubia dago bosgarren tokian eta jeltzaleenean Miren Elgarresta agiri da lehen ordezkari gisa.



Bestalde, maiatzaren 26ko Foru Hauteskundeetara begira Mikel Biain egungo akatea izango da EH Bilduren zerrendaburua Deba-Urola barrutian.

Posta bidezko botoa

Apirilaren 28an Oñatin egongo ez denak edo botoa dagokion hauteskunde mahaian ematerik izango ez duenak posta bidez emateko aukera dauka, baina horretarako apirilaren 18a da eskera egiteko azken eguna. Edozein posta bulegotan egin daiteke eskaera, nortasun agiria eramanda. Gero, apirilaren 8tik aurrera Hauteskunde Juntak igorritako dokumentazioa jasoko du eskatzaileak, aukera guztien papeletekin eta botoa nola eman adieraziz.

TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Arrikrutzeko lehoiaren buru-hezurraren erreplika egin du udalak

Asier Gomezek zuzendutako Atapuercako (Burgos) ikerlari taldeak egindako azterlanean oinarrituta, Foru Aldundiko kultura sailak Arrikrutzeko leize-lehoiaren buru-hezurraren 3D irudiak atera ahal izan zituen (<https://www.youtube.com/watch?v=DFczT1pmdPQ>) eta irudi horiek baliatuta, gazeurraren erreplika zehatza egin du orain Oñatiko udalak. Era honetako lanetan aditua den Eibarko Alfa Arte enpresak egin du erreproduzioa 2.600 eurotan.

Ekainaren 6tik aurrera, Nazioarteko Koben Eguna ospatzen da egun horretan, Arrikrutzeko harrera gunean egongo da ikusgai buru-hezurraren erreplika, bertara hurbiltzen diren bisitari eta ikasleek hobeto ulertu ahal izan ditzaten garai bateko leize-lehoien neurri eta proportzioak

BILBON IKUSGAI

Gogoratu Arrikrutzen 1966an aurkitu zen lehoiaren hezurdura osoa Bilboko Arkeologia Museoa egongo dela ikusgai uztailaren 14rarte. Osorik ikusteko azken aukera izango da, gero Gordailura eramango baitute.



Ikerne Altube, udaleko Turismo eta Garapen teknikaria, erreplika eusten

NAZIOARTEKO KONGRESUA

'Nahi dugun lanaren etorkizuna: eztabaida globala'

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) ehun urte betetzen ditu aurten, eta horren harira nazioarteko kongresua antolatu du Oñatiko Lege-Soziologia erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren eta EHU-rekin elkarlanean. Apirilaren 10ean eta 11n izango da kongresua Oñatin, eta lan munduko askotariko eragileak izango dira bertan: langile eta enpresen ordezkariak, politikariak, akademikoak, iker-tzaileak, lan arloko epaileak...

Ekitaldiaren amaieran Oñatiko Aitorpena aurkeztuko da, kongresuko ondorio nagusiak bilduko dituena, eta dokumentu hori OITren egoitza nagusian (Suitza) egingo den ekitaldian irakurriko da.

MATRIKULAZIO EPEA : Maiatzaren 2tik 10era, IRAILETIK AURRERA HASTEKO



Txiki-Txoko
Oñatiko Haurreskola



0-2 URTEKO

HAURRENTZAT MAIATZAK 2

OSTEGUNA ATE IREKIAK

18:00etatik - 20:00etara

OLAKUA 19
Telf.: 943716405

Askatasunez
bitzako txokoa



Etxaluzeko parkea berrituta

Amaitu dira Etxaluzeko parkea berritzeko lanak, ondoko argazkietan ikus daitekeen moduan. LKS Ingeniaritzak eigidako proiektuaren arabera, parkeko zoladura guztia (1.700m²) berritu da, eserleku berriak ipini dira eta baita iturri bat ere. Argiteria ere berritu dute eta parkerako sarrerak egokitu dituzte irisgarritasuna bermatzeko. Echaide eraikuntza enpresak egin ditu lanak 195.870 euroko (BEZ kanpo) aurrekontuarekin.



Kurtzekua arean geldi dagoen eraikinaren derrigorrezko salmentaren lizitazioa abian jarri du udalak

1,5 milioitan finkatu da gutxieneko salneurria

Kurtzekua I.34 eremuko 8.2 partzelan 'Promociones Kurtzekua' elkarteak dituen hirigintza alorreko betekizunak bete ez izana egotzita, geldi dagoen eraikina eta orubea derrigorrezko salmenta egoeran aldarrikatu eta lizitazio prozesua abian jartzeko baldintza zerrenda onartu zuen udalbatzak, aho batez, otsailaren 28ko osoko bilkuran.

Aipatutako partzelan 12 etxebizitza, garajeak eta lokalak eraikitze baimena eman zion udalak Promociones Kurtzekua elkarteari 2010eko uztailan, beste batzuen artean ondorengo baldintzapean: 'Lanak, baimenak indar osoa jasotzen duenetik kontatzen hasita 6 hilabete epean hasi beharko dituzte eta 18 hilabete igaro aurretik etxeak eraikitze lanak erabat amaitu; lanek dirauten bitartean, ezingo da 6 hilabete baino gehiagoko etenaldirik egin eta jarritako epeak ez betetzeagatik iraungita geratuko da baimena'.

Obra baimena eman zenetik 83 hilabete igaro dira eta enpresa sustatzaileak eraikinaren egitura besterik ez du egin. Obra aspalditik geldi dago, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak eta Oñatiko Arau Subsidiarioetako Hirigintzako Arau Orokorrek jasotzen dutena betez, udalak lizentziaren iraungipena deklaratu du, obra-lizentzian ezarritako epeak errespetatu ez direlako.

Gutxieneko salneurria 1.577.623 eurotan (BEZ barne) finkatu da. Kontratua adjudikatze irizpideen artean, eskaintza ekonomikoa (40 puntu) eta lanen egikaritze epea (60 puntu) baloratuko dira.

Kirol monitoreak kontratatze deialdia

Udaleko kirol sailak antolatzen duen Udako Kirol kanpainen monitore lanetan aritu nahi dutenek **apirilaren 15a** baino lehen eman behar dute izena udaletzeko HAZ zerbitzuan. Maiatzaren 2-3an banatuko da ikastetxeen bitartez uda kanpainari buruzko informazioa, eta maiatzaren 6, 7 eta 8an irekiko da aurreinskripzioak egiteko izen-emate epea.

Gaztelekuko zerbitzuak kontratatze prozedura abian da

Gaztelekuko zerbitzu ezberdinen (Sotoa, Kuboa, Topalekua, Informazio gunea...) kudeatu eta dinamizatzeko arduratuko den enpresa kontratazko deialdia egin du udalak. Gehienezko lizitazio prezioa 223.000 eurotan mugatu da. **Apirilaren 15a** da proposamenak udal bulegoetan aurkezteko azken eguna. Lau urterako kontratua sinatuko du udalak. Udalaren webgunean (www.onati.eus) kontsulta daitezke lizitazio oinarriak.

Azkoagain birgaitzeko aukeren azterketa enkargatu du udalak

Azkoagaine berdegunea eta gainerako instalazioak zaharkituta daude. Belar artifizialeko zelaiaren erabilpen epealdia (10 urte) beteta dago eta 2009an egokitu ziren behin behineko aldagelak zaharkituta. Horren aurrean, udalak Girder Ingenieros enpresari esleitu dio etorkizuneko beharrak definitu eta horietara egokitzeko proposamen teknikoak egitea.



Araotzeko ostatua eraikitzeko lanek itxoin egin beharko dute

Araotzeko neskatilen eskola izandako eraikinean ostatua egokitzeko lanak apirilean edo maiatzean hasia zen asmoa, udalak eta auzoak adostu duten hitzarmenaren arabera, baina obren lizitazio hutsik geratu da (ez da enpresarik aurkeztu) eta, beraz, atzeratu egingo da lanen hasiera. Otsailean onartu zuen udalbatzak lehen faseko lanak lizitazioa ateratzea 298.000 euroko (BEZ kanpo) aurrekontuarekin. Lehen fase honetan taberna, sukaldea eta jangela prestatuko dira beheko solairuan, eta, ahal bada, apartamentu txiki bat ere bai. Orain, deialdi berria egin edo prozedura negoziatu bidez lanak esleitzeko aukera aztertuko du udalak.

Araotzeko errepidea zabalago eta seguruago

Bi hilabete eta erdiko lanen ostean zabalik dago berriz ere Araotzera doan GI-3592 errepidea. Goiko argazkian ikusten den moduan, mendiari zati bat jan eta metrobete inguru zabaldu da errepidea 1,065 eta 1,300 kilometro puntuen artean. Tarte horretan bazterbiderik ere ez zegoen eta nekez gurutza zitezkeen bi iblgailu, horrek zekarren arriskuarekin. Errepidea zabaltzeaz gain, drainadura sarea berritzeko hormigoizko areka berria egin da, eta halangaitzeko petril berria egokitu da 235 metroko luzeeran. Zorua eta seinalizazioa ere berritu dute. Zubieder S.L. enpresak egin ditu lanak 193.705 eurotan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz.

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 10 (asteazkena) 18:30
Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

LABORAL
HETEL
Fp
Mondragon Unibertsitatea



Malira bidaltzeko material bilketa

MALI ELKARTASUNA taldeko kide den Joxean Larrañaga parrokoaren ekimenez material bilketa kanpaina hasi da Oñatin. Lau produktu mota batu nahi dira: **erizaintza materiala** (tiritak, bendak, gasak, esparatrapua...), **eskola materiala** (koadernoak, boligrafoak, arkatzak, zorrozkaileak...), **bizikletak** eta **aitzurak**.

Herriko farmazietan, estanko eta paper dendetan, Parrokiako bulegoan edota Hermansoloña taldearen lokalean utz daiteke materiala. Batutako guztia Mali-ko (Afrika) SAN elizbarrutira bidaliko da. Ekainaren 1era arte luzatuko da kanpaina.

Errefuxiatuei laguntzeko elikagai bilketa egingo du Hotz-Oñatik apirilaren 4, 5 eta 6an



Greziako Lesbos irlan ez aurrera ez atzera dauden milaka errefuxiatuei laguntza humanitarioa bidaltzeko material bilketa kanpaina antolatu du Hotz-Oñati taldeak. **Janaria** (arrain, barazki eta lekale kontserbak, babarrunak, dilistak, garbantzuak, pasta, arroza, haurrentzako esne-hautsa, olio...) eta **higiene produktuak** (haurrentzako pixoihalak eta toailatxoak) batu nahi dira. Asteburu honetan (apirilak 4, 5 eta 6) egingo da bilketa Eroski Center, Eroski City, Super BM, San Migel Kooperatiba eta Errekaldeko dendan. Batzen den materiala Intxaurrendoko **Zaporeak** taldearen bitartez bidaliko da Lesbosera.

DUINTASUNA ESKAINI OTORDUEN BIDEZ

Zaporeak taldeko Oraitz Garcia Oñatin izan zen martxoaren 29an, Grezian errefuxiatuen alde egiten ari diren lana azaltzen. Ezer baino lehen, eskerrak eman zizkien Hotz-Oñati taldeari eta Oñatik herri osoari, emandako laguntzagatik

Intxaurrendoko Gastro-nomia elkartetik sortutako

Zaporeak taldeak hiru urte daramatza errefuxiatuei laguntzen, hasieran *Chiosen*, gero *Athenasen* eta gaur egun *Lesbos*en. 'Otordu duin baten bidez duintasuna eskaini', horixe da **Zaporeak** taldeak egiten duen lanaren filosofia, eta gaur egun 1.300 otordu banatzen ditu bake eta etorkizun bila Greziako uharteetan harrapatuta dauden errefuxiatuen artean. Xabi Gezalaga eta Juan Carlos Fernandez oñatiarrak bertan izan dira lanean. Fisikoki eta psikologikoki gogorra bada ere, bizi-esperientzia oso aberatsa dela esan zuten.



Zaporeak taldeko Oraitz Garcia, Grezian egon diren Juan Carlos Fernandez eta Xabi Gezalaga oñatiarrekin

Batutako materiala **Zaporeak** taldearen bitartez bidaliko da Greziako **Lesbos** uhartera. Egunean **1.300** otordu banatzen ditu Intxaurrendoko **GKEak**

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernandez

Zure ETXEA eguneratu gutxieneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua emazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com

Elkartasun afaria Ginea Conakryko proiektuaren alde

APIRILAK 26, OSTIRALA
BIDAURRETAN, 20:00



Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, urteko bigarren afari solidarioa egingo da apirilaren 26an, Bidaurretako fraideen etxean, ohi bezala, 20:00etan. Bertan batutako dirua Ginea Conakry-n (Afrika) eskola bat eraikitzeko proiektura bideratuko da. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Mendi irteera Arantzazuko Adiskideen eskutik

Apirilaren 7an egingo da Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideen Elkarteak aurtengorako antolatutako mendi ibilaldietan lehena. Lehen ibilaldi honetan paisaiaren eraldaketa izango dugu hizpide. Aizkorri-Aratz natura parekek milurteetan zehar izan duen eraldaketari buruzko azalpenak emango ditu Angel Martínez de Montecelo geografo eta arkeologoak. Goizeko 9etan hasiko da ibilaldia (13 km / 800m+), 4,5 ordutan egiteko modukoa.

Emakumeen ahalduntzea helburu duen proiektua babesten du 'Elkartasuna Chiapasekin' elkarteak

'Elkartasuna Chiapasekin' elkarteak gonbidatuta, MUTRAM (*Mujeres Transformando Mundos*) elkarteko kide den Delmy Tania Cruz mexikarra izan da berriki Oñatin. 'Neoextractivismo y patriarcado colonial: una mirada desde el feminismo del sur' hitzaldia eman zuen, martxoaren 8aren inguruan antolatutako egitarauaren baitan.

Chiapaseko komunitate indigenek bizi duten errealitate gordinaren deskribapena egin zuen Cruzek: pobrezia, gazteriaren emigrazioa, baliabide naturalen harrapaketa bortitza (bertan daude Mexikoko baliabideen %70), feminizidioa, narkotrafikoa... Egungo gobernu teoriararen ezkeriarren politika ere kritikatu zuen MUTRAM taldeko ordezkariak. Diskurtso populista eta iruzurtia dabilena salatuz, herri xehearen iritzia kontuan hartu gabe, enpresa handien interesen alde jokatu, eta herri indigenen kaltetan. Chiapasetik Kariberaino joango den 'Tren Maya' proiektu turistikoa jarri zuen adibide gisa.

KOMUNITATEAK SARETU ETA EMAKUMEAK AHALDUNDU

Arazo horiei guztiei aurre egiteko, emakumeak ahaldundu eta komunitate indigenak berrantolatuta eta sareteko proiektuak sustatzen ari da MUTRAM elkarteak, luraren defentsa, generoen arteko berdintasuna eta ekologiaren defentsa eginez. Autogestioaren aldeko apustua egiten dute, baina ez bakarrik autogestio ekonomikoa; "autodeterminazioaren aldeko kontzientzia politikoa ere garatu nahi dugu, geure arazoaren inguruan erabaki ahal izateko" adierazi zuen Cruzek. "Azken batean, etorkizunerako eskubidea bezala ulertzen dugu autogestioa".

Horregatik, azken hogeita urteetan Chiapasen bizi duten intentsitate baxuko gerrak komunitateen artean eragin duen atomizazioari aurre egiteko lanean ari dira, komunitateen sostengu diren emakumeak ahaldunduz eta beraien artean saretekin, duintasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko. Ildo horretan, Cruzek eskertu egin zuen Oñatitik (udalaren eta 'Chiapasekin Elkartasuna' taldearen bidez jasotzen duten laguntza. "Guretzat berebiziko garrantzia dute, ez karitatez baizik eta elkartasunetik jasotzen ditugun laguntza hauek. Mundu bidegabe hau aldatu nahi badugu, inportantea da zer aldatu nahi dugun, baina are inportanteagoa da nola aldatzen dugun".



MUTRAM taldeko Tania Cruz eta 'Elkartasuna Chiapasekin' taldeko Pablo Miguel

**ARRIZABALAGA**
Aroztegia

**PAKITA**
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Don Sabino hil da



Bere apaiz bizitza ia osoa (61 urte) Oñatin emanda, martxoaren 18an hil zen Sabino Zuazabeitia (Aretxabaleta, 1932 - Oñati 2019), 86 urterekin.

Parrokiako betebeharez gain, Don Sabinok lan handia egin zuen herria aurrera ateratzen eta bertan ikusten zituen hutsuneak betetzen. Don Jose Maria Arizmendiari ikasle eta jarraitzaile lehial, haren teoria eta praxia aplikatzen ahalegindu zen. *Escuela Nocturna de Capacitación Profesional* izeneko gau-eskolaren eta Komertzio Eskolaren (gerora ETEO izango zena) sorreran lagundu zuen, eta gerora Ulma, Enara edo Lana kooperatiben ernamuina izan ziren tailer txikiei ere lagundu zien, bitartekari lana eginez hauen eta Arizmendiari artean. Aloña Mendi kirol elkartearen alde ere egin zuen, klubarentzako egoitza erosteko prozesuan, besteak beste. Beti herriaren zerbitzura.

Aldizkari honekin ere oso gertukoa eta eskuzabala izan zen Don Sabino, beti laguntzeko prest. Goian bego.



Marian Gonzalez

Joxepa Zumaldek 100 urte bete ditu

Araotzeko *Migelen Txiki* baserriko Marijoxepa Zumaldek ehun urte bete zituen martxoaren 31n, eta bere sei alaba, bederlatzi biloba eta bost birbilobez inguratuta ospatu zuen urtebetetze berezia. Ohiturari jarraituz, Mikel Biain alkateak eta gizarte zerbitzuetako buru Susana Altunak lore sorta eta oroigarri bat oparitu zioten herritar guztien izenean. Paulo Zumalderen alarguna, gaur egun kalean bizi da Marijoxepa, Arantxa albarekin, baina bihotz bihotzean darama Araotz eta ahal duenero joaten da bertara. Osasunez ondo dago eta beste urtetxo bat betetzeko ilusioa duela aitortu zuen.



Oñatiko Eskalada Txapelketa

Martxoaren 2an, inauteri jaien inguruan, ohi bezala, (derrigorrezkoa da mozorrotuta joatea) jokatu zen herri mailako eskalada txapelketa, 14.a. Guztira 22 lagunek parte hartu zuten, 5 neska eta 17 mutil. Podiuma honela geratu zen: 1. Egoitz Alkorta (142 puntu); 2. Iñigo Agirre (124 p); 3. Ion Agirre (115 p).

Euskal Garagardoan Azoka

APIRILAK 6
AZOKA PLAZAN
(17:00-24:00)



Euskal Herrian modu artisauan egiten diren 18 garagardo mota ezberdin dastatzeko aukera izango dugu apirilaren 6an. Enpresagintza fakultateko Mondragon Team Academy-ko ekintzaile talde batek antolatuta, Euskal Garagardo Azoka egingo da berdura plazan, 17:00etatik 24:00ak arte.

6 GARAGARDO ETXE

Euskal Herriko 6 garagardo etxe egongo dira bertan: **Sesma Brewing** eta **Brew and Roll** (Nafarroa), **La Txika de la Cerveza** (Bizkaia), **Pagoa**, **Baober** eta **Borbor** (Gipuzkoa). Artisau bakoitzak stand bat edukiko du eta beraiek egiten dituzten garagardo mta ezberdinak dastatzeko aukera egongo da, hemezortzi guztira. Jatekoa ere egongo da, Goierriko Taloak Elkartearen eskutik.

Garagardoak dastatzeko edalontzia (2€) erosi behar da (oroigarri bezala eraman ahal izango da) eta zuritoak (1€) edo kañak (2€) edateko aukera egongo da. Garagardoak egiten ikasteko tailer bat ere egingo dute.

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Egin-en zorra Gara-ren bizkar utzi zuen Garzon epaileak eta egunkariak 3 milioi ordaindu behar ditu bi urtetan

utzi zuen *Egin*-ek Gizarte Segurantzarekin zuen 4,7 milioi euroko zorra, "ondorengotza ideologikoa" argudiatuta. Orduz geroztik ordainketa etenaldian dago egunkaria argitaratzen duen enpresa.

Gero, 2009an Auzitegi Gorenak balio-gabetzat jo zuen *Egin*-en itxiera, baina horrek ez du galarazi haren zorra *Gara*-ri ordainaraztea.

Gauzak horrela, eta egoera guztiz bidegabeba dela irizita ere, GARAK aurreakordioa hitzartu du Gizarte Segurantzarekin, erresistentzia aro bati emaiara eman eta etorkizuneko proiektu sendo baten oinarriak finkatzeko. Akordioaren arabera, GARAK 3 milioi euro ordaindu beharko ditu datozen bi urteetan, eta horretarako laguntza eske jo du gizartera.

Oñatin 100 harpidetza baietz!

» **GARA** egunkariaren egoera ekonomiko larriari aurre egiteko **10.000** harpidetza lortzeko kanpaina antolatu da Euskal Herri mailan. » **Oñatin** 100 egitea da erronka.

'**HARPIDETU ETORKIZUNERA**' lelopean, 10.000 harpidetza egiteko kanpaina antolatu da Euskal Herri mailan, GARA egunkariak bizi duen egoera ekonomiko larriari aurre egiten laguntzeko.

Egoera ulertzeko, hogeit bat urte jo behar da atzera. 1998an Espainiako Auzitegi Nazionalak *Egin* egunkaria itxi ondoren *Gara* sortu zen 1999an, eta 2003an Garzon epaileak *Gara*-ren bizkar

HARPIDETZAK EGITEKO EGUNAK

Apirilak 3, 4, 10, 11, 16, 17, 24, 25 eta 30. / Maiatzak 2, 8, 9, 15, 16, 22, 23, 29 eta 30.

Euskaldun Berria Gelan

(Bidebarrieta kalea, 18)

17:00-19:00

10.000 HARPIDETZA

Egoerari aurre egiteko harpidetzaren aldeko apustua egin nahi du GARAK. Hala, ekaina bitartean 10.000 harpidetza berri egin nahi ditu Euskal Herri mailan. Horretan laguntzeko, batzorde eragileak eratu dira hainbat herritan. Oñatin ere osatu da taldea, eta 100 harpidedun lortzeko erronkari heldu dio. Ondoko taulan adierazten diren egunetan egongo dira Euskaldun Berria gelan, harpidetza mota ezberdinei buruzko informazioa eman eta tramiteetan laguntzeko. ■

Bezeroen beharrei
erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tif.: 943 78 16 48

email: onati@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Hermansoloña taldearen eskertza

Jose Antonio Urteaga
(Parrokiako Misio Taldea)

Hurrengo bi urteetan (2019 eta 2020) esku artean izango dugun elkartasun proiektuaren (eskola bat eraikitzea Ginea Conakryn) aldeko aurreneko hiru ekimenak burutu ditugu. Otsailaren 22an elkartasun afaria egin genuen. Bidaurretan, 60 laguneko partehartzearekin. Bertan eman genuen proiektuari buruzko oinarriko informazioa.

Otsailaren 24an, Pake Lekuko Ikusi Makusi taldeak 'Juzgado de Guardia' antzezlan taularatu zuen.

Bertan izan zen Larrañako aterpetxean dagoen etorkin talde bat, tartean Ginea Conakryko ordezkariak.

Azkenik, martxoaren 5ean, inauteri jaietan, ohiko txokolatada antolatu genuen, arrakasta handiz.

Hasiera ederra, bentan, proiektu eder baten alde.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu herritar guztiei eta ekimen hauek aurrera ateratzen lagundu diguten heriko elkarte eta erakunde guztiei: Udala, Ikusi Makusi taldea, Hotz-Oñati, Bidaurretako frantziskotarrak, Pago Uso elkarte, Azurmendi anderea, eta herritar guztiak oro har.

Hurrengo ekimena apirilaren 26an izango da. Elkartasun afari berria Bidaurretan.

OÑATZ 50. URTEURRENA BILERA IREKIA

2020. urtea Oñatz Dantza Taldearentzat urte berezia izango da, izan ere, taldeak 50 urte beteko ditu. Ekintzaz beteriko urtea izango denez, antolakuntza martxan jartzeko bilera ireki bat egingo da **apirilaren 9an** arratsaldeko 18:30etan, Eltzian, Oñatz Dantza Taldearen lokalean. Bertara, 50 urte hauetan Oñatzen parte izan den oro (dantzari, musikari...) eta datorren urteko ekintzen antolakuntzan parte hartzeko prest dagoen oro dago gonbidatuta. Animatu!

Antixenako iñausketia

Kepa Elortza

Antixenako iñausketia.

Otsail aldiaren iñausi zittuein Antixeneko platan eta gaztaiña zaharrak. Nik hartu neben poza!

2014ko udabarriko gau batian, goguan eukiko dozue, Sta. Mariña plazako ezki gaixo batek adar bat edo bi galdu, eta Antixena paretik doian errepide gaifian jausi ziran. Horren ondorixoz, ezkixon osasun egoeria hain ona etzanez, eta halako arriskuak ekidituko, nolabait *prisazko* iñausketia egin xaten okerren egozenairi. Eta beste danak neguan iñausi zittuein.

Neri etxatan gustau, bapebe, egin xaten *aberixia*, bai garai ezegogixan egin zalako eta bai oso era torpian be egin zalako lana.

Protestau egin notsan

Udalari, eta hareik erantzun '*Arriskuaz jabetuta, presazko kimaketa egin zen premia gehien zuten zuhaitzetan...*'

Eta nik, barriz, horri hauxe erantzun notsan, beste gauza batzuen artian: '*Ez al dago milla bider arrisku handixagua Antixena inguruko etxietan? Edo haizete haundi batian bertatik edo Kantonostetik pasau leikien jentia ez al litzake egongo arrisku haundixan?*'

Ba lau urte pasau diran arren nere erreklamaziñua egin nebetetik, eta suertez iñungo disgustorik izan barik, azkenian iñausi dittue arbola zaharrok. Eta gaiñera, iñausketa lan honetan zertan ebiltzen baekixen jentia ibilli dala esan leike.

Jente danaren gustuko ezta izan, itxuria, eta ni gauza honeittan oso expertua ez izan arren, jardundakua naiz frutal



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Ederra eta misterioa

Lasaitasuna eta, aldi berean, behelanoak ematen dion misterio kutsua biltzen dira San Martineko zuhaitziaren ikuspegi eder honetan.



SANTI MENDIOLA

zainketan.

Arriskua ziharo kentzeiaz gain, nere ustetan behintzet, iñausketia ondo egin da, arbolok gazteketako be aspaldi egindda egon biharko litzakiena; eta adarrak ondo ebagi dittue, ziharrian, ustelketia zaildduz, eta ez horizontalian Sta. Mariñako ezkixairi egin xatian modura. Uste dot iratargixarena be Sta Mariñan baiño hobeto zainddu dauela.

Hiru-lau urte pasau orduko atzera be itxuraketan hasitta egongo dira Antixeneko arbolak; StaMariñakuak eztagozen modura.

OHARRAK ETA DEIALDIAK

Pentsio duinen aldeko manifestazioa

Pentsio duinak aldarrikatzeko, apirilaren 13an Donostian (17:00) egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatuko dute Oñatiko pentsiodunek. Apirilaren 11 da izena emateko azken eguna, astelehenetako elkarretaratzeetan edo Pake Leku nahiz Lagun Leku elkarteetan

Ardi-ximaur ondua eskuragai Gomiztegin

Ardi-ximaur ondua eskaintzen da dohain Gomiztegi baserrian. Interesatuak deitu 608378388 telefonora.

Kaligrafia Jardunaldietarako izen-ematea zabalik

Uztailaren 19-20an Arantzazuko Gandiaga topagunean egingo diren V. Kaligrafia Jardunaldietan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Informazioa: www.whu.eus/web/tipografia

Artzain Eskolak omenaduak

Gomiztegiko Artzain Eskolak Araozko Madina baserriko Maximo Zumalde eta Arantxa Lasagabaster senar-emazteak omendu ditu, aspalditik eskolarekin mantentzen duten harreman beroagatik. Maximo eta Arantxa beti agertu izan dira prest Artzain Eskolari laguntzeko, eta euren baserrian ikasle ugari hartu izan dituzte praktiak egin ditzaten. Gomiztegiko eskolatik irten den 22. promozioiko ikasleen diploma emate ekitaldian jaso zuten merezitako omenaldia.



caravanas



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Oñate zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Oñate zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> LUDOTEKA LEKUZ ALDATU ETA GAZTELEKUKO SOTOAN KOKATUKO DA

Ludoteka eraikina dagoen eraikinean obrak egingo dira. Obra honek ludotekako espazioan ere eragina izango du eta ondorioz, ludotekako espazioa ere biziberritzeko aprobetxatuko dugu. Maiatzean hasiko dira obrak, eta ludotekan ezingo garenez egon, Maiatzaren 6an ludoteka itxi eta Maiatzaren 8tik aurrera gaztelekuko sotoan aurkituko gaituzue. Oñatiko jaiak amaitu arte bertan egotea aurreikusten dugu.

Beraz, **2019ko maiatzaren 8tik urriraren 9rarte GAZTELEKUKO SOTOKO zerbitzua itxita egongo da**, bertan Ludotekaren zerbitzua egongo baita.

LUDOTEKAKO ASTE SANTUKO EKINTZA BEREZIAK

Badatoz Aste-Santutako oporrak eta Oñatiko 3-9 urte bitarteko haur guztientzako tailer desberdinak antolatu ditugu:

- **Apirilak 15, 16 eta 17 (16.30-19.30):** Lorategi tailerra, sormen tailerra eta kaleak margotu tailerra.
- **Apirilak 23, 24, 25 eta 26 (10:30-13:30):** Jolas erraldoiak, zirko tailerra, ipuin tailerra eta kartoiarekin sortuz.

Oñatiko Plazan izango dira ekintza guztiak, animatu eta parte-hartu!

>> GAZTEEN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK

30 urte bitarteko gazteei zuzendutako diru laguntza da. Diru laguntzak, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek eskatu ahal izango dituzte. Hileko alokairu prezioaren erdia estaltzeko diru laguntza emango da gehienez, muga 250 euro hilean izaki. Eskatzailea, edo bizikidetzaren unitateko kide bat gutxienez, Oñatin erroldatuta egon beharko du azken bi urteetan edo aurrez, gutxienez 10 urtetan.

• Bestelako informazioa

<https://www.oñati.eus/eu/tramiteak/dirulaguntzak/gazteria-arloko-dirulaguntzak>

>> GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, aurten ere, gazte elkarteak eta sormena bultzatzea helburu duten dirulaguntzak jarri ditu martxan, eta dagoeneko eskatzeko epea zabalik dago, apirilaren 23rarte.

• Bestelako informazioa

<https://www.oñati.eus/eu/tramiteak/dirulaguntzak/gazteria-arloko-dirulaguntzak>

AGENDA: **19.04.7** Hezurbaltzak taldearen kontzertua, 12:30etan Gaztelekuan. Sarrera: 5€. | Bertso Paper Lehiaketa (sari banaketa), 17:00etan Gaztelekuan. **19.04.12** Txipistin elkartekoekin batera ekintza berezia 17:00etan Topalekuan: Ginkana | Huntza + McOnak taldeen kontzertua, 20:00etan Plazan. | **19.04.13** Bertso Finala, 18:00 Gaztelekuan. | **19.04.18** Campeones pelikula, 17:00etan Kuboan. | **19.04.23** Bizikleta irteera Oñatiko bide gorrian zehar (16:00etan, Kuboan). | DBH 1ekoekin mendi irteera irekia Urbiara (9:00). Aurrez izena eman behar da. | **19.04.24** Kuboko Decathlon (16:30). Euria eginez gero, frontoian. Taldeka izena eman behar da. | DBH 2koekin irteera; Mendexako abentura parkea + Omako basoa. | **19.04.25** Irteera irekia Kubotik; Gatzagako gatz museoa + Hontza Extreme. | **19.04.26** Oñati Cup futbol txapelketa Larrañako zelaian. Aurrez taldeka izena eman behar da. | **19.04.7** Bisonte 1312, Against You, Azken Sustraiak eta Facta taldeen kontzertua, 22:00etan Gaztelekuan. Sarrera: 6€ (aurrez), 8€ (egunean bertan).



Berdura PLAZIA

larunbatero (8:00-14:00)

HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK



LOREAK

Udaberriarekin batera tulipanak, irisak eta sasoiko beste loreak ikusi ditugu Nievesen salpostuan.

4€ ERREMILLETIA



ORTURAKO LANDARAK

Agian, oraindik goizegi da baina ikusi ditugu lehenengo tomate landareak azokan.

0,75€ UNITATEA

Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa

DAVID ETA KAMALA ELKARZABAL ELKARTEA

Jatorriz nepaldarrak dira David eta Kamala, eta Oñatiko *Elkarzabal* elkartearen ortuko barazkiak saltzen dituzte larunbatero Oñatiko azokan.

Bitartekorik ez duten pertsoneri laguntzeko helburuarekin sortu zen *Elkarzabal* elkarte duela ia bost urte, Oñatiko Caritasen babesarekin, eta orduz geroztik hainbat aktibitate jarri dituzte martxan, bertako kideek oinarrizko beharrak asetu eta formazioa nahiz bizibidea eskaintzeko asmoz. Horieta bat, baratzagintza.

Zubillagan dituzte ortu sailak eta negutegiak, eta Oñati



nahiz Bergarako azoketan saltzen dute bertako uzta. "Nepalen ere nekazaritzan aritzen ginen, baina han dena eskuz eta animalien laguntzarekin egiten da; hemen, aldiz, makinarekin. Errazagoa da".

Gustura etortzen omen da larunbatero azokara. "Jendearekiko hartu-eman zuzena gustatzen zaigu eta, gainera, hizkuntzak praktikatzeko aukera ematen digu". Pozik daude Oñatiko jendeak egin dien harrerarekin.

*Elkarzabal
elkartearen uzta
saltzen dute David eta
Kamala nepaldarrek*

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI


Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

AURREKOMENDI



goiko errepublikia

KOLABORAZIÑUA / Roberto Altuna

Zeri esaten xako Aurrekomendi? Non dago? Auzua da? Baserri banakia da? Alkartia da? Zer da? Ba, Aurrekomendi da Oñatiko iparralde osua sortaldetik sartaldera hartzen dauen mendi gaiñeria, muga egitten dauena Legazpi, Antzuola eta Bergararekin eta mendi tontor nagusi honeik dittuena: *Korostiaga* edo *Legazpiko kurtzia*, *Jentilletxe*, *Arranoaitz* edo *Arrandaitz*, *Arrolamendi*, *Landarraitz* eta *Krabelinaitz*. Herriko hiru auzotako lurak hartzen ditu: *Larraña* (Narria goikua), *Garibai* eta *Zubillaga*. Menditik behera datozen errekatxuak, menderik mende, arruak sortu dittue eta arro horreittan baserrixak fan dira agerketan aurreko hiru edo lau gizaldittan. Hona hemen nagusixenak:

Larraña auzuan *Arranoaitz* edo *Antzuelas errekia* dogu, Errekalde auzora urteten dauena. Etxiak: *Lizargarate*, *Sarramendi*, *Koroso*, *Eltzikorta*, *Antzuelas (Etxebarri, Goitti eta Beitti)* eta *Olabarri*. Antzuolako partian badago be, *Arrandegi* be zirrindara honetan sartuko dogu, Aurrekomendiko beste baserrixakin batera bizimodua egin dauelako. Eta Legazpiko *Arrola* eta *Lakiomendiko* baserri danak be hartu-emun haundixa euki daue 'auzo' honekin.

Garibai auzuan *Duruaran errekia*, *Argiñena* baserri parian urteten dauena, eta *Irabiartza errekia*, *Dolatxe* onduan urteeria dakona. Etxiak: *Korosbizkar* edo *Koixkar (garaikua eta azpikua)* eta *Duruan*.

Zubillaga auzuan *Urrizkarategi*, *Apaiko*, *Eskorta*, *Malapozu* eta *Alkorta erreka*. Etxiak: *Askazubi*, *Ixiu*, *Alkorta* eta *Zereña*.



Oñatiko iparraldian dago
Aurrekomendi

Baserri honek danak urrintxo dagoz batzuk bestetik, mihatzen esan degigun, eta auzua alderik alden oñez kruzaitteko ordubete biharko dozu. Bestalde, mendialde honek hustualdi galanta izan dau, azkenengo hirurogei urteotan, batez be: 1856xan, esaterako, hamabost etxetan ehun eta berrogeita hamar lagun egozen erroldauta, eta 2014an, berriz, lau etxetan bakarrik geraketan zan jentia, zazpi laguntxo guztira. 1940xan, milla eta bostehun ardi ibilliko ziran larraan inguruko mendittan; gaur egun, ostera, ehun ingurura ailegauko ete dira? Bertako jentiak, mendi goixenian bizi eta behetan herri bat baiño gehixago eukitta, bizimodua etarateko Oñatira moduan, Antzuolara –errotara garixa eta artua ixotera–, Bergarara eta Mondraguera –ferixetara–, Zumarragara –Santa Lutzira–, edota Legazpira, Elgetara eta Elorrixora be fateko jokeria eukan.



Koixkargo elizia

Aurrekomendi administraziño kontuetarako auzua ez izan arren, gaiñerako alor guztietarako, biharrak halaxe eragindda, auzo moduan jokatu dau, auzo-bizitza haundixaz, gaiñera. Horren froga dira **auzoko ermittia**, auzolanian jasotakua 1925ian, Jesusen Bihotzaren hurrengo domekan (bagillian) jaixa ospaketan dauena, eta Urte Barri egunian, berriz, mokadutxua; **Sarramendiko eskolia**, baserrixan bertan lehenengo, eta ondun geruago, 1923an jasotakua; **Ixiuko gazte-alkartia** gerra ostian izan zana, eta hirurogeiko hamarkadan, **Lizargarate** baserrixa hustu ondoren, bertara pasau eta **auzo-alkarte** moduan gaur arte bertan jarraiketan dauena; **Azaldittako eguneko erromerixia**, agustuan, San Bartolome aurreko domekan zelebraitten zana ...



Sarramendiko eskolia

Bidegintzaia, artazuriketia, auzuak erosittako garixa-joteko makiñia, bedar-igarketia, basolana, ikazkintzaia, ardxen kurak, zapatueroko plazako bueltia astuakin... kuadrillan eta auzolanian egitten ziranak. Elizako konponketak, erretillak, monagillo-txandak, elizbidia zainddu eta garbiketia, auzoko juntia, jaixak, urteroko San Inazio eguneko urteeria Urbixara, plater tiraketak, erbittara edo axerittara fatia... eta abar, eta abar.



Lizargarateko alkartia

Horregatik guztiagatik, hau da, auzo moduan bizi izan dalako lanian eta ospakizunetan, Aurrekomendi Oñatiko hamazazpigarren auzua dala esan geike, edo, bestela esanda, gure goiko errepublikia. Gora oraingo eta lehengo aurrekomenditar guztiak!

Itturixak: Migel Anjel Kortabarria eta
Aurrekomendiko kontuak liburua.

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Mailaz igotzea helburu

Mutilen **futbol**, **saskibalo**i eta **eskubalo**i taldeak mailaz igotzeko borrokan sartuta daude txapelketak azken txapan sartu direnean. **Hiru taldeetako entrenatzaileen iritziak bildu ditugu.**

ENDIKA RUIZ / Futbol taldeko entrenatzailea

“Lau partidu geratzen dira eta bizi-bizirik gaude, borrokatzeko prest”

Lau jardunaldi gelditzen dira Erregional Preferente mailako liga txapelketa amaitzeko eta **Aloña Mendi** sailkapeneko 3. tokian dago, **Lagun Onak** eta **Urola** taldeek baino 4 eta 3 puntu gutxiagorekin. Aloñaren ondoren **Ilintxa** dago, baina 5 puntu gutxiagorekin; beraz, badirudi hiruren arteko lehia izango dugula txapelketa amaitu bitartean. Lehenengo mailaz igoko da zuzenean, bigarrenak promozioa jokatuko du, beste multzoko bigarrenaren aurka, eta hirugarrena sari gabe geratuko da.



Datorren asteburu honetan, Lagun Onak liderraren etxean jokatuko du Aloña Mendik, eta azken jardunaldian Urola hartuko du Azkoagainen. Beraz, egoera zaila bada ere, Aloñak bere esku dauka. “Atzetik hasiko dugu azken esprint hau, baina gogotsu gaude. Denboraldi hasieran sinatuko nukeen azken txanpa honetara bizirik eta igotzeko aukerarekin iristea. Zortzi hilabete daramatzagu lanean, 100 bat entrenamendu egin ditugu abuztutik hona, eta denboraldiko unerik politenera iritsi gara. Partidu ederrak ditugu jokatzeko, eta orain da benetako unea. Taldea ondo dago, ilusioa badaukagu eta igoera lortzen saiatuko gara. Presioarekin baino, ilusioarekin jokatzea izango da gakoa, aukera daukagula sinistuta. Zaleen laguntza ere inportantea izango da”. Igoera lortuko ez balitz ere, urte osoko lanaren balorazioa positiboa dela uste du Endikak, talde gaztea eta etxekoa dela kontuan hartuz.

AITOR ARANBURU / Eskubalo taldeko entrenatzailea

“Play off-era begira min hartutako jokalaria errekuiperatzea da gakoa”

Larunbatean (apirilak 6) jokatuko du Fagor Industrial-Aloña Mendi eskubalo taldeak liga txapelketako azken partidua. Arrasatearren aurkako derbia izango da, eta ohoreaz gain, laugarren postuan amaitzeko aukera izango du jokoan Aitor Aranbururen taldeak. Une honetan bosgarrenak dira, eta igoerako play off-a jokatzeko txartela poltsikoan du, baina, aukeran, hobe 4. gelditzea 5. baino, gurutzaketei begira.



Ustekabe handirik ez bada, **Urduliz** izango da txapelduna eta zuzenean sailkatuko da 1. maila Nazionalerako Igoera Faserak. Hurrengo lau taldeek (**Zarautz**, **Corazonistas**, **Basauri** eta **Aloña Mendi**) play off-a jokatuko dute apirilaren 13-14an, eta horko irabazleak lortuko du igoera faserako bigarren txartela.

Momentu hoetan, min hartuta dauden jokalaria errekuiperatzea da entrenatzailearen kezka nagusia. “Bai. Lehenengo itzulian oso ondo aritu ginen, azken urteetako mailarik onena emanez, nire ustez, partidu bakarra galdu eta bi berdinduta. Zoritxarrez, ordea, bigarren itzulian gauzak erabat okertu dira; sei jokalaria lesionatu zaizkigu, eta horietako batzuk behintzat errekuiperatzea da helburua play off-era begira”

Ez dago denbora askorik, hurrengo astean jokatuko baita play off-a (ziurrenera Zarautzen), baina Aranburuk itxaropenari eutsi nahi dio. “Lehenengo helburua play off-ean sartzea zen, hori lortu dugu, eta jokalaria batzuk errekuiperatzen baditugu, ez dut baztertzeko sorpresa ematea”.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

MODA BEREZIA

NI moda

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

AITOR UGARTE /
Saskibalo taldeko entrenatzailea

“Lauko finalerako txartela lortu dugu eta lorpen polita da, baina igoera fasean ustekabea ematen saiatuko gara”



Mekalki-Aloña Mendi saskibalo saileko talde nagusiak etxeko lanak eginak ditu, eta nota altuarekin gainera. Gipuzkoako 1. Probintzial mailako liga txapelketa amaitzeko lau jardunaldi gelditzen dira eta, dagoeneko, *Final Four*-erako txartela poltsikoan dute Aitor Ugarteren mutilek. Une honetan sailkapeneko hirugarren postuan daude, **Atletico San Sebastian** eta **Donosti Dolphins** taldeen atzetik, eta nahikoa dute garaipen bat, igoera fasean sartzeko.

Gustura dago Ugarte egiten ari diren lanarekin. “Liga hasiera bikaina egin genuen, zortzi partidu egidan irabazita, eta horrek konfiantza eta indar handia eman zigun”. Danera 17 partidu irabazi dituzte, eta 5 galdu.

Liga erregularra irabaziz gero, igoera faseko finalerdiak etxean jokatzeko aukera izango dute, eta horretan saiatuko dira, oso zaila dela jakinik. “**Atletico San Sebastian** eta **Donosti Dolphins** (iazko txapelketa) dira faboritoak, talde sendoak eta beteranoak direlako, baina ez dugu ezer baztertzeko. *Final Four*-ean sartzea lorpen polita da, baina saiatuko gara ustekabea ematen. Defentsako lanean, bereziki, indartsuak gara, eta ez gara ekipo eroso inorentzat”. Larunbat arratsaldetan (18:00) jokatzen dituzte etxeko partiduak, eta esan beharrik ere ez dago zaleen laguntza inportantea izango dela azken txanpan.

motzean



Madalen eta Uxue txapelkun Master Cup txapelketan

PILOTA Madalen Etxegarai eta Uxue Oses gazteek (13 urte besterik ez) seculakoa egin dute *Master Cup* txapelketako promozio mailako txapela irabazita. Zumarragako Beloki pilotalekuan jokatutako finalean 18-15 nagusitu ziren Maria Granado eta Ainhoa Lakuntzaren aurka. Partidua maldan gora jarri zitzaizen 2-8 galtzen hasita, baina gogor siatuta eta bikain jokatuz markagailua irauli zuten. Lehen mailan Garai-Etxaniz nagusitu ziren 22-5 Espinar-Arrillagaren aurka.



Aloña Mendiko igerilariak Irunen, Josune Odroizola prestatzailearekin

Hamar domina Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan

IGERIKETA Aloña Mendiko igerilariak lan bikaina egin dute neguko Gipuzkoako eta Euskadiko junior eta absolutu mailako txapelketetan. Aitor Tatiegi bigarren sailkatu zen 50 Bularrean, Iruñean jokatutako Euskadiko txapelketan. Bestalde, Irunen jokatutako Gipuzkoakoan, Jon Kortabarriak urrea lortu zuen 200 Bizkarrean eta brontzea 100 Bizkarrean; Kepa Aldekoa bigarrena izan zen 200 Bizkarrean eta hirugarrena 100 Bizkarrean; Sara Isasisasmendik ere bi domina kolkoratu zituen: zilarrezkoa 50 Krolean eta brontzezkoa 200 Estiloetan; Edgar Arévalo hirugarren sailkatu zen 50 Krolean; Aitor Tatiegi bigarren 100 Estiloetan; eta Ainhoa Redin hirugarrena izan zen 100 Bizkarrean maila absolutuan (txapelketa Junior mailan).

Hego Afrikan lehiatuko da Xabi Gordoak

ITSAS ZEHARKALDIK Hego Afrikako Port Elizabeth-en apirilaren 13an jokatuko den *Open Water World Tour* itsas zeharkaldian (5 km) parte hartuko du Xabi Gordoak igerilari oñatiarrak. Iaz Altean jokatutako txapelketa honetako proba irabazi zuen oñatiarrak, eta antolatzaileek gonbidatuta joango da Hego Afrikara, gastu guztiak ordainduta. Urteko lehenengo lehiaketa izango da, eta ez daki nola erantzun duen, baina prestaketa saio onak eginda doala adierazi digu. Lehiatzeaz gain, herrialdea eta inguruak bisitatzeko aukera ere baliatuko du Gordoak.





Mendi lasterketen Euskadiko rankineko buruan dago **AINARA URIBARRI**

Euskal selekzioarekin ariko da Espainiako Kopan

Denboraldi bikaina egiten ari da Ainara Uribarri 21 urteko mendi-korrikalari gaztea. Futbolearen ere aritzen da Aloña Mendiko nesken talde nagusian, baina iaz mendi lasterketetan lehiatzen hasi zen eta aurten sekulako jauzia eman du. Podiumetik podiumera dabil. Bigarren postu batekin ekin zion urteari, Kalamua tontorreko (Markina-Xemein) Jaitsiera Bertikalean. Gero, Zestoako 'Kobaz Koba Trail' (15km / 700m+) lasterketa irabazi zuen, Bediako 'Kolazino' proban (24 km / 1500m+) 3. sailkatu zen (23 urte azpikoaren mailan 1go), eta Castelló-ko Espainiako Kopako lasterketan 22. sailkatu zen (sub-23 mailan 1go).

Horrenbestez, mendi lasterketen Euskadiko Kopako sailkapeneko buruan dago Ainara, maila absolutuan, eta horixe du aurtengo helburua. "Oraindik asko falta da; 12 lasterketa dira guztira (6 onenak puntuatzen dute), baina sailkapen nagusia irabaztea gustatuko litzaidake".

Mikel Quelle prestatzailearekin ari da entrenatzen Ainara, eta hori omen da halako jauzia eman izanaren arrazoietakoa bat. "Entrenamendu saio espezifikoa programatzen dizkit Mikelek; metodikoagoa eta konstanteagoa izaten ari naiz entrenamenduetan, eta, adibidez, aldapan gora asko hobetu dut. Iazko markak 30 minututan hobetzen ari naiz, batzuek beste". Korrika egiteko probak ditu gustuko Ainarak, desnibel handiegirik ez dutenak.

Zoritxarrez, aurten ezin izango du Aloña Igoeran parte hartu. Egun berean konpromisoa du bere taldearekin (Gaikar Kirolak) Kanpezun (Euskadiko eta Espainiako Koparako puntuagarria). Aurretik, Arrasate-Udalatz lasterketan parte hartuko du, eta maiatzaren 12an Euskadiko selekzioa ordezkatzeko du Castron, Espainiako Kopan.

Aloña Igoera eta **Buetraitze**ko Igoera Bertikala, maiatzeko lehen asteburuan



Hilabete falta da oraindik, baina agendan gorritz azpimarratzeko moduko asteburua izango da maiatzeko lehena. Hilaren 5ean XV. Aloña Igoera jokatu da (22,6km / 1.868m+) goizeko 9etan hasita.

BUETRAITZEKO IGOERA BERTIKALA

Maiatzaren 3an, ostirala, Buetraitzeko gaueko igoera bertikala (2,7km / 727m+) jokatu da, gaueko 22:00etan hasita. Lasterketa girotzeko pintxo poteoa eta talogileak egongo dira Arantzazun (19:00-21:00). Autobus zerbitzua ere egongo da (18:30-00:30). Oñati eta Arantzazu artean.

Marisol Ramos, lau domina Espainiako txapelketan



Marisol Ramos Aloña Mendiko atletak palmaresa gizontzen jarraitzen du. Kros denboraldia borobiltzeko, urrezko bi domina lortu zituen Madril jokatu Espainiako txapelketa 55 urtetik gorakoaren mailan, bat bakarka eta bestea mistoa.

Bestalde, Ourense jokatu pista estaliko Espainiako txapelketetan zilarrezko domina bana eskuratu zituen 1500 metroan (5'24") eta 3000 metrokoan (11'25").

MENDI IRTEERA **Urbasa eta Andia** mendikateak



Aloña Mendik apirilera antolatuta duen mendi ibilaldia Urbasa eta Andia mendikateetan barrena izango da, apirilaren 14an. Bakaikun abiatuta, Baiza (1.182 m) mendira igoko dute, gainik gain San Adriango ermitara iritsi arte, mendikatearen ertzetik beti, Sakana aldera begira (17 km / 800m+). Sei orduko ibilaldia, zailtasun barik. Izena emateko azken eguna, apirilak 11 (10€), Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com.

Galiziako ahotsak Oñatin

Pontevedrako
Obradoiro Vocal eta
Cantemos abesbatzek
kontzertua emango
dute, Ganbara Txikik
gonbidatuta



Apirilaren 17an, asteazkena, Santa Ana aretoan, 19:00etan

Ponteareas (Pontevedra) hiriko abesbatzak dira biak ala biak, eta kontzertu berezia eskainko dute Oñatin (apirilak 17) Ganbara Txikik gonbidatuta.

Obradoiro Vocal A Vila (OVAV) 40 lagunez osatutako ahots mistoen abesbatza da. Sari ugari jaso ditu estatu mailako *Villa de Avilés* eta *San Vicente de la Barquera* lehiaketean, eta Galiziako Ganbera Orkestrarekin ere kolaboratu izan du emanaldi ezberdinetan. Zartzuela ezberdinak ere interpretatu izan dituzte.

Cantemos abesbatza duela zortzi urte eratu zen, OVAV-eko harrobiko talde gisa. 62 neska-mutikok osatzen dute. Iazko otsailean *Candás*-eko Habanera lehiaketako lehen saria eta publikoarena irabazi zuten, eta 2017an *Torrevejako* Habanera lehiaketako bigarrena.

Oñatiko emanaldian saio bana eskainiko dute, estilo eta garai ezberdinetako abestiak kantatuz, eta bukaeran elkarrekin abestuko dituzte bi kanta. Sarrerak egun berean salduko dira, txarteldegian.

Ganbararen abesti kuttunenak

Disko-liburua plazaratu du Ganbara Abesbatzak
25. urteurrena ospatzeko



Xabi Mugarza,
Ganbara
Abesbatzako
presidentea eta
Aitor Biaiain,
zuzendaria,
diskoa aurkezten

'GURE BIDEA' izeneko disko-liburua plazaratu du Ganbara Abesbatzak, koruaren 25. urteurrena ospatzeko. Bere ibilbideko hirugarren diskoa da, *Sagatz* (2004) eta *Amaraun* (2014) lanen ostean. Disko berriak 17 kanta biltzen ditu, denak ere esanahi berezia dutenak abesbatzarentzat. Batzuk *a capella* grabatu dituzte, eta beste batzuk pianoa edota soka orkestraren laguntzarekin.

Diskoarekin batera 'Gure Bidea' liburua ere argitaratu dute, abesbatzaren 25. urteko ibilbidea laburbilduz, irudi eta garai ezberdinetako taldekideen eta guraso nahiz jarraitzaileen testigantza eta oroitzapenen bidez. Disko-liburua 15€tan dago salgai Txokolateixan, Igone barberixan, eta Bizipoz nahiz Eltzia tabernetan.

MASAJEA ETA TERAPIA ALTERNATIBOAK

- Mina ekiditeko alternatibak
- Lunbagoa, bizkarra, lepoa eta askoz gehiago

CHAOWEN

Kalegoieba 1. behea 688 682 199
Oñati 697 943 477

JUANJE
MARGOAK

T. 627 818 247



Argazkilaritzaz ikasi eta, batez ere, gozatzeko

Hemen da berriz ere ARGÍ Argazki Festibala, bi urtean behingo maiztasuna duten jardunaldiak. Gaur egun argazkilaritza mailan Euskal Herrian dauden joera berriak ezagutu, puntako argazkilarien lanak ikusi eta, batez ere, argazkilaritzaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu. Erakusketak, tailerrak, solasaldiak, dokumentalak, *BookJockey* saioak... egitarau bete-betea prestatu du Ilunpetan taldeak, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu ekitaldi ezberdinetan parte hartzera.



Egitaraua

APIRILAK 5 - MAIATZAK 5 KAXA ESTENOPEIKOIA INSTALAZIOA. FORUEN PLAZAN

Argazki bat ateratzen dugunean kamera barruan ematen den prozesua ezagutzeko aukera izango dugu udaletxeko arkupean egongo den kaxa ilunaren bidez.



ARGIZAIOLA ERAKUSKETA. HERRIKO DENDETAN.

Euskal Herriko *Argizaiola* lehiaketan saritutako argazkiak ikusgai egongo dira herriko hainbat dendatako erakusleihatetan.

IBAIA EZ DA LEKU BAT ERAKUSKETA. FORUEN PLAZAN.

2018ko udan, Poloniako Wroclaw hirian sortutako irudiak, *Etxepare* eta *Air Wro* erakundeek koordinatutako beka artistikoari esker. Nagore Legarretak (Hernani, 1981) kamera bihurtutako ontzi zilindrikoak *Odra* ibaiaren ur azalean ipini zituen, ibaiari kamera eskura jarri eta nola ikusten gaituen, galdera horri erantzun nahian.

PLAKETAK ERAKUSKETA. FORUEN PLAZAN.

Nola txukundu memoria? Nola baretu zauriak oroitzapenekiko akzesorik ez dugunean, gure esku ez dagoenean? Memoria irudikatuz? Oroitzapenak marraztuz? Ariketa honetan murgildu ondorengo emaitza isila da Aitziber Orkolagaren argazki erakusketa.

GU ERAKUSKETA. BERDURA PLAZAN.

Argi urdin intermitenteak dena bustitzen du, distiren eta argirik gabeko unetxo beltzetan, sehaska kanta batek ekografitzen nau. Xabier Atxa arrasatearraren argazki erakusketa.

BARRUBASO ERAKUSKETA. ANTIXENA PARKEAN.

Itsaso batzuk eta baso anitz zeharkatu ostean, orri txuri bat ikusten dut basoan, paisaiak eta bizitza berrasmatzeko

aukera, elurra urtzekoa, amildegian sare bat margotzekoa... Mendi Urruzunoren (Erreterria, 1971) argazki erakusketa.

BESTE BEGIRADA BAT ERAKUSKETA. ELTZIAN.

Larrañako harrera zentroan dauden erre-fuxiatuekin elkarlanean prestatutako erakusketa. Ilunpetan taldekoek argazki kamerak utzi dizkiete, eta Oñatiko herria nola ikusten duten argazki bidez adierazteko eskatu.

APIRILAK 6 - MAIATZAK 5 ISPILUAK ERAKUSKETA. HERRI GUZTIAN ZEHAR.

Denborak aurrera garamatza etengabe. Oraina berehala bihurtzen da iragana. Norabide honi kontra egin aldera, kaleak antzinako irudiz beteko ditu Ispiluak argazki erakusketak. Une batez ez bada ere, iragana oraina bihurtzeko asmoz.

APIRILAK 12 - MAIATZAK 12 ARGI ARANTZAZU ERAKUSKETA. ARANTZAZUKO GANDIAGA TOPAGUNEAN.

Ilunpetan taldeak eta Arantzazu Gaur fundazioak antolatuta, Arantzazun 15 eguneko egonaldi artistikoa egin duten Elisa Gallegok eta Antonio Guerrak prestatutako erakusketa.

APIRILAK 13 V DE BERGARA (Daniel G. Valero) BOOKJOCKEY SAIOA. UDALETXEKO ARKUPEAN.

Argazki liburuez gozatzeko modu berria dira BookJockey saioak. DJ saio batean bezala, argazki liburuak nahastu eta gurutzatzen dira istorio bat sortzeko.

APIRILAK 22 - MAIATZAK 5 SAN TELMO MUSEOKO GABRIELA CENDOYA FUNTSA ERAKUSKETA. UDAL LIBURUTEGIAN.

Artearen historian aditua eta argazki-liburuen bildumagilea da Gabriela Cendoya-Bergareche. San Telmo museoari dohaintzan utzitako 2000tik gora liburuz osatutako bilduma dauka, eta horietako batzuk, gehienak emakume argazkilarienak, ikusi ahal izango ditugu.

Itziar Bastarrika
ILUNPETAN Argazki Taldea

“Herritarren feedback-a jaso nahi genuke”

Argazkiak eta argazkilaritza izango dira nagusi Oñatin apirilean zehar. Herriko plazan, dendetako erakuslehoetan, berdura plazan, liburutegian, Eltzian, gaztetxean, Arantzazun...teknika, garai eta estilo ezberdinetako argazkiak ikusiko ditugu nonahi, eta aukera baliatzeko gonbita luzatzen digu Ilunpetan taldeko Itziar Bastarrikak. “Gaur egungo argazkilaritza herritarrei gerturatzea da Argi Festibalaren helburua. Ahalegin berezia egingo dugu erakusketak kalera ateratzen, herriko txoko guztiak argazkiz zipriztintzen. Edonork aurkitu ahal izango du gustuko zerbait egitarauan eta, beraz, animatu egin nahi dut jendea parte hartzera. Gainera, iritzia ematera ere animatu nahi ditut herritarrak, pertsonalki edo emailaz (ilunpetan@gmail.com), guk hainbeste maitasunez antolatzen dugun jaialdi hau jendearengana nola iristen den jakiteko”.

Ekitaldi gehienak apirilean izango dira, baina martxoan hasi zen Argi Festibala, Arantzazu Gaur Fundazioarekin batera antolatzen duten ARGI ARANTZAZU lehiaketarekin. Arrakastatu hasi ere. “Bai, aurten, berrikuntza moduan, hamabost eguneko egonaldi artistikoa antolatu dugu, artisten topaleku eta elkarrizketarako gune bezala Arantzazuk izan duen balioa berreskuratu nahian. Guztira 164 argazkilariren proposamenak jaso genituen, horietako batzuk nazioartetik, eta Elisa Gallego Picard eta Antonio Guerraren proiektuak aukeratu genituen. Osatu dute egonaldia Arantzazun, eta apirilaren 13tik aurrera ikusi ahal izango dugu emaitza Gandiaga Topagunean”.

Horrez gain, beste hainbat ekitaldi (*BookJockey* saioak, argazki-liburuaren erakusketa, Oñati nola aldatu den erakusten duen ‘Ispiluak’ erakusketa...) egongo dira (ikusitako egitaraua). Aipamen berezia merezi du, Larraña zentroko errefuxiatuekin batera antolatu duten ‘**Beste begirada bat**’ erakusketak. Kamera eskutan hartuta, gure herria nola ikusten duten erakutsiko digute.

2008an sortu zen Ilunpetan Argazki Taldea, Gaztelekuak antolatutako argazki ikastaro baten ondoren. Gaur egun 12 bat lagun batzen ditu eta Eltzian du egoitza. Bertan gela iluna egokitzea da (udalaren laguntzarekin) esku artean duten hurrengo proiektua, argazkilaritza analogikoaren magiaz gozatu nahi duten herritarrekin partekatzeke.



APIRILAK 30 GABRIELA CENDOYAREKIN SOLASEAN

SOLASALDIA. UDAL LIBURUTEGIAN.
Argazkilaritzaren barruan argazki-liburuek duten lekuaz eta eskaintzen duten aukeren inguruko solasaldia.

MAIATZAK 2 UNA ENTRE TOTS

ZINEKLUBA. KULTUR ETXEAN.
Jordi Rovirak eta Oscar Morenok zuzendutako dokumentala, Joana Biarnés (1935-2018) prentsa argazkilaritari buruz. Aurreiritzi guztiak gaindituta, ordurarte gizonena zen arlo batean arrakasta izan zuen emakumea. Histo-

riako pertsonaia inportanteak ezagutu eta erretratatu zituen, eta mito bihurtzekotan zegoenean desagertu zen.

MAIATZAK 17 - 18 - 19 AKATSAREN POETIKA TAILERRA. ELTZIAN.

Nagore Legarretak zuzendutako tailerra. Gure zurruntasunak hautsi eta esateko dugunarekin konektatuz, argazki lanak aktibatzea da helburua. Bide horretan, gure begiak hezi eta irudimena elikatuko dugu argazkilaritza ezberdinen lan prozesuak eta argazki lanak aztertuz. Partaide kopurua mugatua (10 pertsona). Izen-ematea: ilunpetan@gmail.com. Prezioa: 90€.

LIBURUAREN EGUNA-2019

udal liburutegian

APIRILAK 4 / 18:30

IPUIN KONTAKETA

‘Zaku bete lelokeri’ 3-6 urte arteko haurrentzatko saioa Miren Larrearen eskutik.

APIRILAK 7 / 12:00

ANTZERKI ARINAK KLIK BATEAN

Korrika Kulturaren baitan, hiru antzezlan arin, hiru toki ezberdinetan, 12:00etan hasita:

-‘**Tabernaria**’ (Mikel Martinez) Gaztetxean;
-‘**Komunak**’ (Irati Agirreazkuenaga eta Arantzazu Sanz) udal liburutegian;
-‘**Biba Boi**’ (Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga) Elkar Hezi ikastetxean.



APIRILAK 10 / 18:30

TERTULIXAN (EUSKARAZ)

Euskarazko irakurketa taldearen saioa *King Kong teoria* (Virginie Desperantes) liburuaren inguruan, Yurre Ugartek dinamizatuta.

APIRILAK 11 / 18:00

IPUIN KONTAKETA ETA ZIENTZIA ES- PERIMENTUAK

‘Bizitzaren labortegian’, 6 urtetik gorako neska-mutikoentzako ikuskitzuna Ana Galarra-garen eskutik (gonbidapenak eskatu).



APIRILAK 23 - MAIATZAK 5

ARGAZKI LIBURUEN ERAKUSKETA

Gabriela Cendoyaren argazki-liburuaren bildumako zenbait ale ikusgai egongo dira udal liburutegian. Gai ezberdinen inguruan emakumeek egindako lanak erakutsiko ditu Oñatin. (Argi Festibalaren baitan).

APIRILAK 30 / 19:00

GABRIELA CENDOYAREKIN SOLASALDIA

Artearen historian aditua eta argazki liburuaren bildumagilea da Gabriela. 2000tik gora argazki liburu ditu. (Argi Festibalaren baitan)



APIRILAK **12**

HUNTZA TALDEA

Korrika Kulturalaren baitan, trikiti-pop-ska musika egiten duen taldearen kontzertua. **20:00, Foruen plazan**



APIRILAK **13**

PILAZOAK

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Txantxiku ikastolaren Egunaren baitan. **16:30/18:30 Zubikoan**

MUSIKA

APIRILAK 5 / 18:00 SAN JOXEPE ETA ALOÑA ABESBATZAK

Bergarako eta Oñatiko jubilatuen abesbatzen kontzertua. **Santa Ana aretoan.**

APIRILAK 5 / 22:30 KOBRAZULO

Antzuolako rock taldearen kontzertua. **Itturri tabernan.**

APIRILAK 6 / 19:00 DOMEKETARROK

Estilo ezberdinak (pop, folk...) jorratzen dituen musika talde oñatiarraren kontzertua. **Pake Lekun.**

APIRILAK 7 / 12:30 HEZURBELTZAK

Jon Maia (bertsolari eta abeslaria), Gorka Hermosa (akordeoilaria) eta Jesus Prieto 'Pitti'k (gitarrajolea) osatutako taldea. **Gaztelekuan.**

APIRILAK 12 / 20:00 HUNTZA + McONAK

Trikiti-pop-ska eta folk-rock zeltiarra egiten duten taldeak. **Foru enparantzan.**

APIRILAK 14 / 12:45 MUSIKA BANDA

Oñatiko musika bandaren kontzertua. **Santa Anan.**

AGENDA

Laburbira

Euskara-ko film laburren XVI. Zikloa - 2019
Martxoaren 18tik apirilaren 17ra



APIRILAK

11

LABURBIRA

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, 2019ko Laburbira lehiaketan aukeratuak izan diren 9 euskal film laburren emanaldia. **20:00, Kultur etxean**

Film laburrak

APIRILAK 14 / 19:30 FRANK BLACKFIELD BAND

Folk-country-blues musika egiten du Frank Blackfield taldeak. **Pako tabernan.**

APIRILAK 26 / 22:00 HOLY TXALA + ANAI + DAMA

Metal gaua. Sarrera, 5€. **Antixena gaztetxean.**

APIRILAK 27 / 22:00 BISONTE 1312 + AGAINST YOU + AZKEN SUSTRARIAK + FACTA

Street punk musika egiten duten lau talde. Sarrera, 8€ (aurrez 6€) **Gaztelekuan.**

APIRILAK 28 / LENAO

Oñatiko rock taldea. **Antixena gaztetxean..**

MAIATZAK 5 / 19:30 GARCIA DEL VAL

Country-blues musika egiten duen Arrasateko taldea. **Itturri tabernan.**

ANTZEZLANAK

APIRILAK 7 / 12:00 ANTZERKI ARINAK

Korrika Kulturalaren baitan hiru antzezlan arin, hiru toki ezberdinetan, 12:00etan hasita. **'Tabernaria'** (Mikel Martinez)

Gaztetxean; **'Komunak'** (Irati Agirreazkuenaga eta Arantzazu Sanz) udal liburutegian; **'Biba Boi!'** (Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga) Elkar Hezi ikastetxean (DBHko eraikinean). Sarrera doan. **Gaztetxean, liburutegian eta Elkar Hezi ikastetxean.**

BILERAK

APIRILAK 10 / 18:00 BERDINTASUN KONTSEILUA

Oñatiko Berdintasun Kontseilu herritarra eratzeke bilera irekia. **Udaletxeko aretoan.**

ERAKUSKETAK

APIRILAK 1-7 EMAKUME AURPEGIA DUEN NIKARAGUAR ERRESISTENTZIA

2018ko apirilaren 18an eman ziren hiritar-protesta baketsuen aurrean gobernuaren errepresioa bistaratzen duen argazki erakusketa Nikaraguako emakumeen begiradatik. **Kultur etxean.**

APIRILAK 23-MAIATZAK 5 'ARGAZKI LIBURUAK UKITU, USAINDU, BEHATU... EZAGUTU' ARG! argazki festibalaren



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripiak
- Ontziak
- Osasuna
- Etxebizitza
- Aurrezkia
- Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

baitan, Gabriela Cendoya bildumagilearen argazki liburuen erakusketa. [Udal liburutegian.](#)

HITZALDIAK

APIRILAK 30 / 18:00
GABRIELA CENDOYAREKIN SOLASEAN

ARG! festibalaren baitan argazki-liburen inguruan. [Udal liburutegian](#)

IPUIN KONTAKETA

APIRILAK 11 / 18:00
IPUIN KONTAKETA ETA ZIENTZIA ESPERIMENTUAK 'Bizitzaren laborategian', 6 urtetik gorakontzako saioa Ana Galarragaren eskutik (eskatu gonbidapenak). [Udal liburutegian.](#)

BERTSOLARITZA

APIRILAK 7 / 17:00
BERTSO PAPERAK
Bertso paper lehiaketako sari banaketa. [Gaztelekuan](#)

LUDOTEKA

APIRILAK 6 / 10:00-13:30
LUDOTEKA IBILTARIA
Txaloka ludotekaren eskutik. Naturan jolasean. [San Martinen.](#)

GAZTE TOPAGUNEA

APIRILAK 19 - 21
GAZTE TOPAGUNEA
Ernai eta Aitzina gazte erakundeek antolatuta, Lemoan egingo den Gazte Topagunera joateko deia luzatu du gazte asanbladak.



Hileko gomendioa

Ipuin hauetako pertsonaiak haur bakoitzaren barruan bizi dira; guztiak haurren nortasunaren parte dira eta hori eraikitzea lan gogorra da. Ezauguera argitzeko zentzuan, gaiztoak deritzogu ipuin hauei.

Haur liburua



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorenzo 3 ☎ 943 78 21 16
Apirilak 4, 12, 13, 14 eta 23.
Maiatzak 2.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Apirilak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25.
Maiatzak 1, 3, 4 eta 5.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Apirilak 8, 9, 17, 26, 27 eta 28.
Maiatzak 6 eta 7.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Apirilak 10, 11, 18, 19, 20, 21, 22, 29 eta 30.
Maiatzak 8 eta 9.

ZINEA



Apirilak 4 - 8

ZINE KLUBA:
¿Podrás perdonarme algún día?

NAGUSIAK:
La mujer de la montaña

GAZTETXOAK:
Un niño que pudo ser rey

Apirilak 20 - 22

ZINE KLUBA:
Pájaros de verano

NAGUSIAK:
Ay, mi madre

GAZTETXOAK:
Ez da zine emanaldirik izango uda osterarte

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala eta larunbata (22:30)
Igandea (19:30 eta 22:30)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Apirilak 11 - 15

ZINE KLUBA:
LABURBIRA (Euskal film laburrak)

NAGUSIAK:
El gordo y el flaco

GAZTETXOAK:
Dumbo



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA BILA Neska oñatiarra eta arduratsua naiz. Etxebizitza txiki bat behar dut alokatzeko. 692264324.

GARAIE ITXIA SALGAI Ugarkalde auzoko 18 zenbakian. Ate automatikoa eta 29m². Tel.: 652 735 405


ETXEBIZITZA BILA Oñatiko familia batek etxea alokairuan hartzeko behar du. Deitu: 666 741 493.

ODOL ATERALDIA

APIRILAK 5 / 17:00-19:00
Enpresagintza fakultatean,
17:00-19:00

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia



OÑATI

KALERIK
-
KALE



Zubikoa San Juan Kalea (III)

Azkenaldian aldakuntza nabariak izan dituen errebal, auzo eta kale berezi honen beste xehetasun batzuk ere azaldu gura dizkizuegu hirugarren atal honetan.

ABERE-HILTEGIA

1762. urtetik 1850. urtera arte abere-hiltegi-harategia plaza nagusian egon zen, gaur egun Foruen Enparantzako 9 zenbakiak okupatzen duen orubean. XIX. gizaldiaren erdi aldera, plaza birmoldatu zenean, arkupeak eta etxeak eraikitzeko hiltegi-harategia bota eta berria egin zuten, Txantxiku Ikastolak eta Gaztelekuak parrokia aldera begiratzeko duten zatian. Garai horietan haragi-hornidura publikoa zenez, Udalak enkantera ateratzen zuen. 1869. inguruan liberalizatu egin zuten zerbitzu hori, eta harrezkero ez zen harategi publikorik egon. Plaza ez zen abere-hiltegiarentzako lekurik aproposena, eta **San Juan kalean mataderixa berria jasotzea** erabaki zuten erreka ondoan **1870. urtean**, plazako eraikinean neskatielen eskola eratuz. Proiektua **Pantaleon Iradier** arkitektoarena izan zen, eta zuzendaritza-lanak, **Felipe Dugiols** jaunak egin zituen. 1871. urtean hasi zen funtzionamenduan, 1980ko hamarkadaren hasieran Zubillagako abere-hiltegia jarri arte mantendu zena.

BESTE ZENBAIT LANTOKI ETA TAILER

San Migel errota historikoaren eta geroagoko zerrategiaren berri eman genuen orain hurrengo batean. Dena den, inguru horretan egon ziren beste lantegi eta tailer txiki batzuk ere. Badakigu XVIII-XIX. gizaldietan ehule, **banastagin**, **ultzezin** eta errementariak aritu zirela auzoan. Horren lekuko dugu, esaterako, **Metalgua** izeneko etxea. Baina baita XX. ean ere. Pare bat gogoratuko dugu:

- **Madinatarren zume-lantegia.** Larrañako **Obiaga** baserriko jatorrikoa zen familia horrek San Migel errota ondoan eduki zuen tailerra 1921-1922 urtera arte. Orduan aldatu omen zuten Atzeko kalean Azkarraga deritzan etxera guk ezagutu genuen **zesterixia**. Oñatik zumadiak egon ziren, besteak beste, Buztinsolo, Altamira, Torrealde, Larraña eta Zañartun. Batzuk berandura arte.

- **Alemanen tailerra.** **Peter Gundel**, I. mundu-gerraren ondoren Oñatira iritsitako alemanak, Madinatarrak jardundako toki berean jarri zuen hezurrezko produktuak lantzeko enpresa txiki bat; oso

artetsua omen zen. Urte batzuk berandutxoago lehengusua zuen **Paul Kernstock** ekarri zuen hona. Dena den, Gundelek, Errepublikan denboran, lantegia itxi eta Argentinara alde egin zuen. Paulek, hemengo gerra ostean, aterkientzako eta bastoientzako kirtanak egin zituen lokal berean, bizitzera ere familia osoarekin etxe horretara joan zelarik.

Egia esan, San Juan kalearen **izaera majo aldatu da**. Aurreko ataletan aipatu genizkizuen Santa Ana komentuaeren historia eta azkenaldian izan duen bilakaera: kanpotik neurri batean lehengo itxurari eutsi arren, zeregin eta zerbitzu desberdin askotarako erabili izan dira komentua eta bere inguruak, mojek Garagaltza auzoko egoitza berrira joan zirenetik. Komentu osteko ortu zabalean **Zubikoa kiroldedia** eraiki zen fase desberdinetan; eliza izandakoan **areto handi samarra** egokitu zen antzerki-emanaldi, hitzaldi eta abarretarako; lekaimeen bizilekua zena **ikastetxetarako moldatu** zuten; garai bateko sakristauen etxean eta aldekoan hainbat **bulego eta lokal publiko** egon dira eta daude: ertzainak, udaltzainak, bake-epaitegia, udal musika-bandaren entsegu-tokia, edota komunak.

Auzoko beste zenbait lekutan ere kokatzen dira gaur egun zerbitzu publiko garrantzitsuak: adibidez, **Pakeleku**, jubilatuen elkarte, kalearen hasieran eskuma aldetik; **Turismo-bulegoa**, San Migel errota eta zerra egondako orubean; **Osasun zentroa**, **Enterradoriena** izeneko etxearen aldamenean; edota **lurrazpiko aparkalekua** kiroldegipean.

ETXEAK ETA EUREN IZENAK

Eskumako aldean:

Parrokiako klaustroa baino metro batzuk aurrerago etxebizitzailara bat zegoen, duela gutxi, eraitsi gabe, aldakuntza sakona eduki duena, Pakeleku elkarte hori jarri denean. Honako hauek ziren lehenengo laurak:



San Juan Kalean botatako kale-baserriak: ezkerretik eskumara *Pekeñoa*, *Silbestrana*, *Metalgua* eta *Enterradoriana*.

* **Mailluna.** Tomas Ugarte, Oñatiko alkate ohia, eta emaztea bizi izan ziren bertan. **Etxea eraberritu egin zen 1926an** neoeuskal estiloan, orain daukan itxura hartuz; Tomas beraren proiektuaren arabera, agian, arlo horretan aditua eta aritua baitzen.

* **Ehuliana.** Jauregiatzotarrak izan ziren San Juan kaleko **ehuleak**, oihalak egiten zituztenak, alegia. Pantaleon izan zen azkena XX. mendearen hasieran.

* **Makatzena.** Oñate abizeneko familiaren bizilekua. Zuma-lanetan jardun zuten **zesterixan**. Otxueneko Pilar Odriozola ezaguna horra ezkondu zen.

* **Sindika.** Izen hori, seguru asko, garai batean Santa Anako komentuko **sindikoaren etxea** izan zelako edukiko zuen. Sindikoak mojentzako mandatari-lanak egiten zituen. Gerorago lehen aipatutako sakristauaren etxera aldatuko zuten. Gure denboran Ezkibel familiaren bizilekua zen. Etxe honen ertzeko kantoitiki abere-hiltegiara jaisten zen.

* **Mataderixia.** Arestian adierazi dugunez, abere-hiltegia 1870ean jaso zuten erreka ondoan; eta bere gainean 1948-1949ean, **Damian Lizaurren** proiektuarekin, **etxebizitzak** atondu zituzten **udal langileentzako**: alguazil, kale-garbitzaile, elektrikista eta abarrentzako. Abere-hiltegia Zubillagara eraman zenean, bota zuten eraikin osoa.

* **Denda barri.** Uneren batean **saltokiren bat** han kokatu zelako, horrela deitzen omen zitzaion mataderiaren aurrean, kalearen 12. zenbakian, jaso zuten hainbat pisutako etxeari. Aurretik ere egongo zen besteren bat, Lazarraga-Garibaitarren **armarri zahar-txikitxo**a geratu baitzaio aurrealdean. Familia asko bizi izan da bertan: Arrazola, Kernstock, Irizar, Altzelai eta Ordorikatarrak, besteak beste.

* Mendeetan zehar lehenengo errota eta gero aroztegia nahiz zerrategia eduki zuen eraikin zaharra (San Juan kale 14an), duela urte gutxi eraitsi zen etxebizitza berriak egin eta **Turismo-bulegoa** jartzeko.

* **Alemanena.** Ikusi dugu gorago San Juan kaleko 16an bi familia desberdin bizi izan zirela: Gundeltarrena eta Kernstocktarrena. Hortik dator, jakina, etxeari eman ohi zaion izena. Hau ere zeharo eraberritu da azkenaldian barrutik; antzinako tailerrak desagertu dira; kanpoko aldetik **arku konopial polita** duen atea mantendu da.

* **Gogorduena.** Eskuin aldetik azkena zen. Bi familia ezagutu genituen bertan: Kortabariarrak lehenengoan eta Elortzatarak bigarrenean: etxepeko sotoan **iltzeak egiteko tailertxo** bat kokatu zen. Orain etxe berria aurkitzen da orube horretan.

* **Goizeko Izarra.** San Juan kaletik apartetxo gelditzen bazen ere, aipatzekoa da Julian Arkauz indianoak jasoaerazi zuen horrela zerritzan **jauregitxo liraina**, bere lorategi eta zuhaitz ederrekin. Orain dela urte batzuk bota zen bi etxe-multzo egiteko.

Ezkerreko aldean:

Santa Anako komentuen ondoren, elkarri erantsitako **hiru kale-baserri** zeuden:

* **Otxuena.** Aiastuitarren eta Odriozolatarren bizilekua.

* **Azpeittixena.** Jatorria herri hartan zuten Dorronsorotarrena. Aita Roman **banastagina** zen.

* **Kirriñena.** Urtazatarrena. Hiru **etxe-izen horiek ondo ezagunak** eta zabalduak dira Oñatin. Eraikina aurretik jatorrizko neurritan mantendu bada ere, sakon eraberritu dute barrutik eta ostetik.

Kirriñenaren aldamenenean **plazatxo bat** zegoen eta handik pasatzen zen errotarako **malatua**, puxetarri eta guzti. Barrurago ere baziren beste **kale-baserri** batzuk:

* **Pekeñona.** Bikuñatarrak bizi ziren bertan.

* **Enterradoriana.** Muruatarrena. **Goiko Otxuena** ere esaten zitzaion, baina etxe horretako aita, Juan Murua, urte askoan herriko **ehorzlea** izan zelako, ezagunago zen lehenengo izendapena.

* **Txinpartana.** Enterradoriaren ondoan.

* **Silbestrana.** Erostarbe-Etxeberria familiarena. Harri eta adreiluzko **egitura zahar, bitxia** zeukan; 1970ko hamarkadan eraitsi zuten. Etxekoandrea deitzen zen Silbestra.

* Silbestrenen baserriari erantsita hiru pisutako etxe berria eraiki zuten Mariano Elortza igeltseroak gerra ostean.

* **Arrazola abadiarena.** Aurrekoaren ondoren, plazatxoak kalearekin egiten zuen ertzean. Jose Luis Arrazola parrokiako apaizarena zen.

* **Metalgua.** Dorronsoratarrek hauek ere. Kale-baserri honek harlanduz egindako **puntu erdiko arku**a zeukan atean eta **inskripzioa giltzarrian**. Zeharo eraberritu dituzte azken bi hauek ere.

Kalearen amaieran **Aingeru Guardako santutxua** dugu, herriko bidegurutzetako klasiko batean eta Garagaltzako Etxeberrialde baserriaren aurrean.



Etxebizitza edo lokal
bat saldu nahi duzu?

ETXIAN
Inmobiliaria

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net
Etxian f



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



(*) Itten: arrastua, pistia

Itten bat

>> Kontu kontari

Arbelargo Domingorena

Ederra pasau xakon behin gure *Domingo Haundiri!
Baziran egun batzuk tripako miñez ebillena eta, ohian
ondoezik eguela, jaiki zan bikarbonatua hartzeko
asmuagaz. Jaiki be, illunetan jaiki zan, koittadua; izan
be, Arbelargo etxaboletan sasue hartan etzan argi
askorik izaten, kurseloren¹ bat edo beste gehixenera,
eta illuntasun hartan bikarbonato-potia hartu biharrian,
mataratasena hartu eben, haren hautsa urakin nahastu
eta eran eben. Ño! Bizirik urten ebenian gizarajuak! Oso
flakauta ibilli zan, ziharo jota, baiña bizirik urten eben
Jainkuari eskerrak!

Oharra: Domingo Etxezarreta Muñoa -Emiliano eta Jesus
artzaiñen aitta, eta sasue bateko fondako Martiñen eta
Txoko txabolako Joanitoren anaia- 1983an hil zan.

1 *Kurselo= kuselu=kriseilu.*



Arbelargo etxabolak (Urbixa)

>> Euskeraz egogi

*Txakur kaka

Txakurren eginkaarixak jasoten eztirala eta, jente asko agertu da hasarre eta kejaz arrazue guztiarekin, eta hori izentaitteko *'txakur kaka'* berbia ebali da takian-potian. Hori esateko, baiña, gure artian **'korotza'** ebali izan da orain arte. Normalian edozein abereren eginkaarixa aittaketako ebalten dan terminua da, baiña baita gizakumiarenari esateko be. Badira zenbait ejemplo berba honen ebaleria ilustraitteko:

Errefrauak:

Aberatsentzat arroza, eta pobrientzat korotza
Saixak jan dost bildotsa, ordeko itzi dost korotza

Animalixa bakoitzarenak bere izena dako:

Astakorotza, bekorotza (bekotza, behixena), zaldi-korotza, ardi-korotza (arkorotza), ahuntz-korotza, erle-korotza. Oillo, oillar eta hegazti guztien eginkaarixak, ostera, aixkoment *'ziriña'* izenez ezaguketan dira.


Eta *gorotzilla*, gure zemendixa edo azaroa izentaitteko be ebali izan da.

>> Asmau

Ondorengo aditzok zein izakirekin ebaliko zeuke?

- | | |
|------------------|--|
| 1. Hil | A. Pertsonak, ganaduak, ipiztixak |
| 2. Akabau, akabo | B. Pertsonak |
| 3. Deballau | C. Pertsonak |
| 4. Itto | D. Ganaduak, ipiztixak; pertsonen kasuan, gutxiesteko zentzuan |
| 5. Garbittu | E. Pertsonak |
| 6. Urkatu | F. Subaak |

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Noizkua ete da fotografixa hau?

Gaurkuan ezotsuet azalpen garbirik emungo, argibide ziurrik eskiñiko. **Itaunak, galderak, preguntak** egingo dotsuet, dudak, zalantzak uxaketako, zuluak, hutsunak beteteko. Lan hori zeuek burutu daizuen. Dana dala, lasai, trankil, **pistatxo batzuk** ai-llegauko xatzue-eta.

Argazkixak erakusten dauen **ingurua superrezaguna** da gehixenontzat. Sarrittan ibilliko ziñain hortik zihar; batzuk, biharbada, **egunero pasaitten zarai** kalearte horretatik oiñez, bizikletaz edo kotxez. Sasue batian, goiko partian daguen ezkerreko etxera fateko premiñia eukiko zebein, gaixotasunen bat osatu guran. Eta eskumakaldian, barriz, **Xolonponera** edo **La Ceba**-ra trago bat hartzeko, orain gaztiaguak, hortxe beheratxuago, **ahuntzaren arraren** izenez ezaguketan dan ardandegi batera joten dozuen letxe.

Azkenengo aittatu dogun taberna horren aurreko plazueliak izen bat baiño gehixago euki dau: **Berdura-plazatxua, Ramon Maria Lili, edota langillien omenezko egunarena**. Beste laguntzatxo batzuk: kalietan **adokiñak** agiri dira; gaiñian **emakume liraiña** dakon iturrirxa behealdian somaitten da, Txaketuenetik hurrian; ezkerreko horma luzia kendu barik dago; jarri barri daguen arbola-illara bikoitza ikusten da kalia behera. Begiratu ondo Zazpibidetako bidekurtze barreneko etxiari.

la gauza zariein ondorengo galderen **erantzunak asmatteko**:

- **Zela dakoi izena** goiko partian, ezker-eskuman eta zatika agerketan diran etxiak?
- **Noiz kendu** ziran **adokiñak** kale horretatik?
- **Ze arbola-klase** ziran aldapan behera egozenak?
- Eta, honenbestez, **noiz ataratakua** dala uste dozue gutxi gorabehera antxiñako **fotografixa hau**?

Zuen erantzunen zain geraketan gara. Gehixen hurreraketan danarentzako **saritxo bat** egongo da. Argibidiak datorren hilla-beteko aldizkarixan.



Sustraien mugetatik
haratago



www.lana.eu

